



Pil-pilean

TIKIDUNA

Soraluzeko hilebetekaria
2023ko azaroa · 404 alea



**ESPERIENTZIADUNAK
ZAINTZAZ ETA BIZITZAZ**



PIL-PILEAN 404

2023ko azaroa

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|---|---|
| 4 | Elkarrizketa Felix Arizaga Arrasate | IRITZIA |
| 6 | Begira Koloreak grisaren gainean | 3 Neuretik Beatriz Akizu Aizpiri
<i>Hezkuntzaren plazan</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 16 Gutunak Joxean Iñurrieta
<i>Plazentziako ondare historikoa</i> |
| 14 | Argazki bidez Egun bikaina | 16 Komiki tira |
| 18 | Erreportajea Zaintzak | 17 Hausnarketa Zelan ikusten duzu
zaintzen gaia? |
| 24 | Kirola <i>Goazen, Soraluze!</i> eta
Soragazteak Rugby Kluba | 17 Puntua Garazi Arizaga <i>Esker
publiko bat</i> |
| 25 | Kultura Zine eskaintza | |
| 26 | Nondik nora Nerea Nieves,
Soraluzetik Mallorcara | |
| 28 | Sakonean Teknologia berriekin
sortzen | |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak,
oroitzak, iragarki laburrak... | |



**Pil-pilean herri
komunikabidea**

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Hezkuntzaren plazan



BEATRIZ AKIZU AIZPURI

Orri zuriaren aurrean jarrita, neuretik Pil-Pileanera ekarritakoak etorri zaizkit. Pandemiak eta orduan hasi berria zen Ukrainako gerrak sortutako krisiak ekarri nituen gogora. Egun, Israelek Palestinaren aurkako eraso gehitu behar zaio, giza eskubideen nazioarteko itunak urratzen dituen estatu "demokratiko" baten erasoaldia. Jarraitzen dugu aldaketa giro bizian murgilduta: Iraultza teknologikoa, trantsizio ekosoziala eta energetikoa, munduaren berrantolaketa geoestrategikoa, migrazio fluxuak, balore aldaketak... Abagune nahasi honetan, etorkizunean irauteko hausnarketa egin behar du gure herriak.

Orduan, krisi kontzeptuak gordetzen duen ziurgabetasuna terminoa ekarri nuen gogoetarako; etengabeko salbuespen-egoerari erantzun behar eragiten duen desmobilizazioa aipatu ere. Gaurkoan, ziurgabetasun garaietan mantra bilakatu den "egokitzapen" terminoak ezkutuan gordetzen dituenak ekarriko ditut.

Eusko Ikaskuntzako hezkuntza taldeko kideei Marina Garcés filosofoa gogora ekartzea gustatzen zaigu (nola diren gauzak, talde horretan bi plazentziatar gaude, kasualitatea?). Berak dio "malgutasuna" eta "plastikotasuna" ez direla gauza bera. Etorkizunarekiko jarrera desberdinak daude bi kontzeptu horietan: erabaki ezin dugun etorkizunak ekarriko digun horri egokitu, plastikotasunaren izenean nortasuna galduz behar bada, ala neurri batean gure esku dagoen etorkizuna malgutasunez marraztu, garena eta duguna bidean galdu gabe.

"Plastikoa" ez den malgutasuna garatzeko hezkuntza da gakoa. Hezkuntzan kokatzen da jendartean dauden ikuskeren arteko solasa, eztabaida eta gatazka: nork nori zer nola irakatsi eta ikasi. Hauen ingurumarian biltzen dira ideologia, kultura, hizkuntzak eta eredu sozioekonomiko desberdinak. Biharko jendartea hezkuntzaren plazan datza. Hezkuntzarekin lotutako zeharkako gai komunak ditugu euskal lurralde guztietan, horien inguruko azterketa sakonak ekarriko du Euskal Herriaren jendarte eta lurralde kohesioa; Euskal Herriko hezkuntza sistema-eremua irudikatzea beharrezko dugu abagune nahasi honetan herri gisa kokatu ahal izateko. Eta hau burutzea ezinbestekoa den moduan, egiturak sendotzea eta berriak sortzea beharrezkoa izango da.

**MARINA GARCÉS
FILOSOFOAK DIO
MALGUTASUNA ETA
PLASTIKOTASUNA EZ
DIRELA GAUZA BERA**

“Topatu dudan lehenengo armagina 1512koa da”

TESTUA ETA ARGAZKIA: EGOITZ UNAMUNO

Azaroaren 16an, Felix Arizaga Arrasatek (Soraluze, 1950) *Armagintza Soraluzen* izeneko liburua aurkeztu zuen Kalebarreneko lokalean, hain zuzen, bere aitita Eusebiok eskopeta tailerra izan zuen sotoaren gaineko solairuan. Liburuak XVI. mendetik 2005ean SAPAk herrian atek itxi zituenera arteko bilakaera kontatzen du, eta salgai dago Iratxo Goxodendan.

Armagenen familiakoa zara.

Bai. Aitita Eusebio Arizagak eskopeten tailerra sortu zuen 1908an, Erregetxean, eta 1916an, Astiazarani etxea erosi zion Kalebarrenen eta hara pasatu zuen. Nik topatu ditut gure familian zazpi belaunaldi armaginak izandakoak. Armak odolean eroan ditut beti. Nik nahi nuen etxeko tailerrean lan egitea, baina aitak esan zuen armen kontua behera zihoala eta hobe nuela beste zeozer egitea.

Noiz hasi zinen armagintzaren historia aztertzen?

Gustatu umetatik. Beti izan dut harremana arma ekoizleekin eta jubilatatu nintzenez, lan bat egin nuen munduko armen garapena aztertuz: *Evolucion de las Armas de Fuego Portatiles* (2021). Horregatik galdetu zidan Astiazaranek ea zergatik ez nuen egiten Euskal Herriko armagintzaren historia, eta *Breves notas sobre la armería vasca* lana egin nuen. Gero esan zidan 450 urte zirela Plazentzian arma fabrika sortu zutela eta 245 orrialdeko liburua osatu dugu.

Zer jaso duzu liburuan?

Zela hasi zen armagintza bailara honetan, suzko armak behintzat. Ezpatak, pikak eta bestelako armak ere hemen egin ziren, Arrasatetik hasi eta Elgoibarreraino. Gero etorri ziren *Reales Frbricas* esaten zaienak, baina Plazentziako arma zurien eta suzko armen fabrika ez zuen erregeak egin, plazentziatarrek egin zuten, 1573an. Fabrikatzaile guztiak elkartu egin ziren eta sortu zuten, gaur *holding* esaten zaiona, asoziazio bat, ez zen kooperatiba bat baina bueno... Baliatzen zuten elkarrekin saltzeko, prezioak adosteko eta lana ere proportzioan banatzen zuten. Urte horretan bertan, Felipe bigarrenak [Espainiako erregea]

eman zion *Real Fabrica* titulua, erregearen hornitzailea zelako.

Aurretik zer zegoen?

Nik topatu dudan Plazentziako lehenengo armagina, 1512koa da, Ibañez de Loiola. Lehenago ere baziren, Errege Katolikoek hemen armak erosten baitzituzten.

Eta ostean?

Reales Fabricas jausi zenean, 1860ko hamarkadan, sortu ziren tailer txikiak, eskopetatileak-eta. Legea ipini zuten Espainian edozeinek fabrikatu zitzakeela armak eta orduan ez zegoen obligaziorik armak erregearen fabrikatik pasatzeko. Garai horretan sortu zen Euscalduna fabrika ere, Espainiatik etorritako diruarekin. Handik bi hamarkadatarra ingelesek erosi zuten eta *The Placencia de las Armas Company Limited* sortu zuten, Espainiako barkuak kanoiekin hornitzeko. Gerora, 1935 urte aldera, inbertsore espainiarrek erosi zuten berriz eta eratu zuten SAPA, Sociedad Anonima Placencia de las Armas, tartean Calonge ministroa eta markes batzuk zirela.

Gaur egun apenas gelditzen den armagintzaren arrastorik Soraluzen. Zure ustez zelan gorde liteke memoria?

Tailer inportantei plaka bat ipintzeko ez da diru asko behar. Adibidez, Soraluce, Sacia, Amuchastegui... Plazentziak zortziehun eta milatik gora langileko fabrikak izan zituen. Herriaren nortasuna hor dago.

Etikaren ikuspegitik begiratuta, zer iruditzen zaizu armagintzaren historia?

Arma mota bi daude, bata ehizarako eta bestea gerrarako. Erromatar batek esan zuen orain dela bi mila urte, *Si vis pacem para bellum*, ‘Bakea nahi baduzu, prestatu gerra’. Gaur egun ere, palestinarrek armarik ez balute izango, israeldarrek aspaldi desagerraraziko zituzketen mapatik. Berdin Ukraina. Armak derrigorrezkoak dira. Zelan erabiltzen dira? Hori eztabaidatu liteke. Baina armak derrigorrezkoak dira. Arma barik ezin liteke nazio bat egon.



Koloreak grisaren gainean

ARGAZKIA ETA TESTUA: EGOITZ
UNAMUNO

Haurren aurrean, helduok heldu dio Euskal Herriko Euskaltzaleen Topaguneak abiatu eta, Pil-pileanen gidaritzarekin, Hizkuntza Politikarako Batzordeak lehen aldiz Soralezera ekarri duen ekimenak. Berariaz aipatu ez arren, leloak hizkuntzaz dihardu. Helburua: umeekin kontaktuan dauden helduak (gurasoak, hezitzaileak...) konturatu araztea zein garrantzitsua den euren hizkuntza portaera umeena egituratzeko. Aurten, guraso eta familia euskaltzaleak batu dira kantura eta jolasera, ipuin kontaketa, Dolmenen Ibilbideko bisitara, Berbalagun egitasmoaren aurkezpena... Eta urriaren 28an, baita mural koloretsua margotzerara ere; koloreak horma grisaren gainean. Horixe da, hain zuzen, gure hizkuntza transmititzeko ahalegina: koloreak grisaren gainean.







Juan Carlos Astiazaran (GDI) martitzeneko saioan.

Udalaren txanda

Presen prozesua laugarren eta azken saioaren zain gelditu da. Azaroaren 29an egingo da eta, bertan, Udalak aurrera begirako planteamendu bat aurkeztuko du.

Urriaren 25ean abiatu zen Deba ibaiko "ibai-paisaia eta presekin zer egin erabakitzeko partaidetza prozesua" eta dagoeneko aurreikusita zeuden lau saioetatik hiru egin dira, parte-hartze handiarekin gainera, bataz beste, saio bakoitzean ehun herritar inguru batu dira eta.

Metodologia antzekoa izan da saio guztietan, lehenik hizlari batek hitzaldia eskaini du eta ondoren herritarrek euren galderak eta iritziak agertzeko aukera izan dute. Lehen saioan, Gaizka Aranguren ondare inmateriallean adituak, "ingurumenaren eta ondarearen arteko zubia" planteatu zuen eztabaidaren

marko gisa, ingurumenaren aldetik presak ibaiarendako kaltegarriak direla azpimarratuz. Bigarren saioan, berriz, Ura Agentziako Ruben Santosek eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Alfredo Morazak jardun zuten, uholde-arriskuaz eta ondare kulturalaz. Santosek azaldu zuen presek uholde-arriskua areagotu egiten dutela eta hargatik, Ura Agentziak bere egin dituela Aldundiak Merlin proiektuaren bitartez Olabarrenako eta Igaretako presak beheratu edo partzialki eraisteko planteatu dituen aktuazioak. Morazak, berriz, jakinarazi zuen presek duten balio patrimoniala "eskasa" dela, baina tinko azpimarratu

zuen Soraluzeko ondare industrialaren "azken lekukoak" direla. Azkenik, Gure Deba Ibaia taldeak iradoki du "datuek" ez dituztela justifikatzen Ura Agentziak planteatuak dituen aktuazioak eta uholde arriskuen inguruko plan berri bat eskatu du, Merlin proiektua behin betikoz baztertzea planteatzearekin batera.

Herritarren iritzi trukeak

Prozesuak aurrera egin ahala, saioetan parte hartu duten zenbait herritarrek adierazi dute iritzia aldatu dutela eta beste zenbaitetik, berriz, ezetz. Saioetako, iritzi-trukeak, orohar, lasaiak izan badira, ez da gauza bera gertatu internetekoetan (Plaentxia.eus), izan ere, bateko zein besteko iritziak eman dituzten herritarrek tonoz gogorragoan idatzi baitute.

Laugarren saioa, eguaztenean

Datorren eguaztenean egingo da laugarren eta azken saioa. Bertan, Udalak hartuko du berba, batetik, orain arte prozesuak eman duena laburbiltzeko eta, bestetik, aurrera begirako planteamendua aurkezteko. Ondoren, aurreko saioetan bezala, herritarrek aukera izango dute, momentuan bertan, euren iritzia emateko. Ikusteko dago Udalak zer planteamentuko duen.

PROZESUAN PARTE HARTU DUTEN ZENBAIT HERRITARREK ADIERAZI DUTE IRITZIA ALDATU DUELA

ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, punta-puntuko teknologian lan egiten dugu. Cad Cam sistema berritzaile arazibari dugu.

Elizburu, 3 beheha
SORALUZE
Tel: 943 75 25 67
Bilag: 747 42 78 17
e-mail: elizpe@h@gmail.com

Ordategia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



SORALUZE MOTOR

Mendiola ind. 13
Sorluze

476 556 817 - 943 75 21 38



Kontulan

Aholkularitza fiskala · Kontabilitatea
Lan-aholkularitza · Zerbitzu juridikoa
Ticket bai · Outsourcing · Aseguruak

www.kontulan.com

Txoko

Eguneko menua, plater kombinatuak, hamburgerak, ogitartekoak, radioak, pizzaak, gosaria...

Entzartuak agitar dira
Tel. 943 75 17 88



MENDIZABAL okindegia

Ogja · Prentsa · Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbetak eta igandek
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



BOLIA TABERNA

Piribok, ardoak, korribetak
Gazte-giroko festa



FOGASLER ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorluze) · 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com



Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko fritxoak
Souffles
Tel.: 943 75 10 02



Hortz klinika

Erribal 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.591

Karla Gustinne
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

30 urte baino gehiagoko esperientzia
odontologia, proteziak, ortodontzia, odontopediatria, implantazioak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onakorra (DRI):
ekianentzia, orfito eta tele.



KM design

Kiru Muntatzaik

943 76 99 85

km.muntatzaik@yahoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amalago 3
BERGARA

- Disainu eta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-oinarriak
- Logelak
- Zoruak
- Aloak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

MABEL IZURPAINBEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Erribal 1
Tel.: 943 75 14 89



IZKUGIRRE Igelberritza

Eraikin berriak · Kalitatezko emaitza
Erreforma · Era gutxiatoko igelberritza


50 urteko esperientzia - 610 638 913



TATTOO ESTUDIO ARTISTIKOA

INIBIRU

Calitogel-er 16, SORALUZE (Aizgorri) Tel. 47725403 www.ajiberritza.com



Bidelagun euskaltzaletasunean

SOMABE Supporting your projects

aras


ALBISUA S.L.

laibi ELECTRICIDAD

Maratoia ahotsak batzeko

Gaitu kanpainarekin bat eginez, abenduaren 3an, plazentziatarren ahotsak batzeko maratoia antolatu du Pil-pileanek.

"Erronka berria dugu euskaldunok: makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenik irakatsi egin behar diegu". Hain zuzen, helburu horrekintxe abiatu dute Librezalek, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde publikoak eta Euskaltzaleen Topaguneak Gaitu kanpaina *Batu ditzagun gure ahotsak* lelopean, euskarazko milaka ahots batu eta adimen artifizialari euskaraz irakasteko.



Kanpainaren irudia.

Pil-pileanek bat egin du ekimenarekin eta, Euskal Herriko beste herri askotan bezala, Euskararen Egunean plazentziatarren ahotsak batzeko maratoia antolatu du Soraluzen. Hala, abenduaren 3an, domekan, goizeko 11:00etan hasi eta 14:00etara bitartean, herritarren ahotsak grabatzeko gunea egokituko du Udalak Kalebarrenen duen lokalean. Txanda online erreserbatu liteke Plaentxia.eus-en.

Ostean, bazkaria

Ahotsen maratoiaren ostean, 14:30ean, euskaltzaleak bazkaritara batuko dira elkarte gastronomiko batean, euskaltegiko euskara ikasleekin eta Berbalagunekin. Bazkarian parte hartu nahi duenak, Pil-pileanera deitu edo idatzi.

 **DANOBATGROUP**

 **euskaraz
IZANGO
GARA**

Sartu lehiaketaren estekan, erantzun galdera eta **irabazi produktu ekologikoz betetako otarre bat.**

info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2023.html

HARTU PARTE
DANOBATGROUP-EN
EUSKARAREN EGUNA
OSPAZKEKO LEHIAKETAN!

PARTE HARTZEKO
AZKEN EGUNA

2023ko **abenduak 3** | 00:00h



 **DANOBATGROUP** / DANOBAT / GOIMEK / IDEKO / LATZ / SORALUCE 



Greba eta mobilizazioak

Azaroaren 30ean, eguena, goizean goizetik hasiko da greba giroa Soraluzen; besteak beste, eguerdian, manifestazioa egingo dute

Datorren eguenerako, azaroaren 30erako deituta dagoen Greba Feminista Orokorriari begira motorrak berotzen ari dira. Zaintza Eskubide Kolektiboa aldarrikatzeko protesta-eguna antolatzen diharduen herriko taldeak zehaztu ditu Azaroaren 30ak izango dituen zertzelada nagusiak. Aurreratu dutenez, besteak beste, 09:00etan egin dute herritarrendako lehen hitzordua. Plaza Berrian elkartu eta ondoren manifestazio zaratatsua egiteko asmoa dute.

12:00etan manifestazioa
Hurrengo hitzordua, berriz, eguerdirako egin dute. 12:00etan herriaren erdigunetik manifestazioa egingo dute, Plaza Berritik abiatuta. Horren ostean, ekitaldia izango da



Grebarako eskuorriak banatzen.

musikaz lagunduta, eta greba eguna ixteko, arratsaldean eskualdeetan izango diren deialdietara joateko deia egin dute, Debabarrenaren kasuan, Eibarko mobilizaziora.

Greba egunaren Soraluzeko deitzaileek gogorarazi nahi dute

protesta hori "Greba Feminista Orokorra" izango dela eta egingo den aldarrikapena zaintzen gainekoa dela, baina "emakumeak eta gizonezkoak" biak daudela greba egitera gonbidatuta.

Zaintza duinak eskubide

Sindikatu eta mugimendu zabalak babesten duten Herri Akordioan daude jasota Azaroaren 30ean aldarrikatu nahi direnak. Guztira, 23 eskaera daude, epe motzerakoak zein epe luzerakoak. Adibidez, epe motzerako helburuetako batzuk dira, "zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea, zaintza sistema publikoa indartzea eta garatzea, zaintza zerbitzuen pribatizazioa amaitzea, etxez etxeko laguntza zerbitzua indartzea eta garatzea". Besteak beste, Euskal Herriko Mugimendu Feministak eta haren baitako kolektiboek eta asanbladek, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak, pentsiodunen mugimenduek, Gure Eskuk, SOS Arrazakeriaren, AEKK, sindikatuek... sinatu dute Herri Akordioa.

Abenduaren 1ean ekingo dio Bizikalek Gabonetako kanpainari

Abenduaren 1ean, barikua, Gabonetako azoka egingo dute Plaza Zaharreko karpan, Bizikale Merkataria Elkartearen eskutik. 10:00etan hasita, bederatzi saltokik jarriko dituzte postuak bertan: Triskel, Belarrak, Kooperatiba Elkartea, Autoservicio Amparo, Iratxo Goxo Denda, Likai estetika zentroa, Criado fruta-denda

Mendizabal okidengia eta Todo a 100. 20:00ak arte egongo da azoka zabalik eta haren bueltan, 19:00etan, azokan erosi dutenen artean bost erosketabonu zozkatuko dituzte, segidan txokolatada egingo dute nahi duten guztien artean partitzeko, eta, bukatzeko, Bizikale Elkartek herriko kaleetan jarri dituen

Gabonetako argiak piztuko dituzte.

Atrakzioa eta txurreria

Gabonetako kanpaina osatzeko, Wipe Out atrakzioa ekarriko du Bizikalek. Plaza Zaharreko karpan jarriko dute, abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra bitartean. Buelta bakoitza 1,5 euro kostako da eta sarrerak Bizikaleko kide diren dendetan eta tabernetan salduko dira. Atrakzioaz aparte, txurreria ere ekarriko dute.

Debarrena suspertzeko plana

Eusko Legebiltzarrak Lehenetasunez Jarduteko Eremu izendatu du Debarrena; orain, eskualderako plan estrategikoa landuko dute

Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu du Debarrena Suspertzeko Ponentzia eta eskualdea Lehenetasunez Jarduteko Eremu izendatu du. Azaroaren 16an egin zuten hori, osoko bilkuran. Erabaki horren ondorioz, datorren urteko martxoaren amaierarako, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiekin lankidetzan, Debarrena sozioekonomikoki biziberritzeko erakunde arteko plan estrategiko bat diseinatuko

du. Debegesatik, Debarreneko Garapen Agentziatik jakinarazi dutenez, plan horrek gutxienez 24-26 milioi euroko aurrekontua izango du eta lau urtean egin beharreko inbertsio lerroak zehaztuko ditu.

Industria eta zaintza

Ponentzian jaso denez, besteak beste, eskualdeko motorra izan den industria jarduerak indarra galdu du urteotan, eskualdea zahartze-prozesuan dago

sartuta, langabezia-tasa EAEko batezbestekoa baino handiagoa da eta gizarterratzeak eta migrazioak premiazko arreta merezi dute.

Egoera aintzat hartuta, zenbait proposamen egiten dira. Adibidez, hirien, degradatutako azuoen, eta, okerren dauden eremuen berroneratzea. Bestalde, Debarrena sozioekonomikoki biziberritzen hasteko lehenetasuneko bi ardatz ikusten dira: industriari lotutako jarduera ekonomikoa eta zaintzari lotutako herritarren ongizatea bultzatzea.

24-26

MILIOIKO AURREKONTUA IZANGO DU PLAN ESTRATEGIKOAK

GOKI
erreformak

- FATXADA BIRGAITZEAK**
S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOEN BIRGAITZEA
- ESTALKI ETA TEILATUAK**
ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LALAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK
- BARNE ERREFORMAK**
ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK
- IRISGARRITASUNA**
OSTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA
- BULEGO TEKNIKOA**
ERAKINEN IKUSGARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42



Mari Cruz Gantxegi eta Federico Eguren, senideekin eta Itxaropenako eta Udaleko ordezkariekin.



Bazkaltiarak txaloka.



Itxaropenako juntako hainbat kide.

80 urte pasata ere bizipozez

Azaroaren 17an, giro ederrean ospatu zuten 80 urtetik gorako omenaldia Itxaropenan; abenduan, 2024ko kuotak kobratu, loteria banatu eta, besteak beste, otar zozketa egingo dute bazkideen artean

Azaroaren 17an, bete-beteta egon zen Itxaropena Erretiratuen Elkartearen 80 urtetik gorako omenaldian. 90 lagun elkartu ziren, aretoaren edukiera osoa betez, eta, majo bazkaldu ondoren, aurtengo bi herrikideak omendu zituzten, Federico Eguren eta Mari Cruz Etxaniz, haiei opariak emanaz. Omenaldia borobiltzeko, Ander Ariznabarretak jarritako kantu

klasikoak abestu zituzten elkarrekin.

Loteria eta kuotak

Bestalde, urtea amaitu aurretik, Itxaropena Erretiratuen Elkarteak loteria, eta, 2024ko kuota kobratuko diete, 12 euro kuotako eta 5 euro loteriako. Abenduaren 15a bitartean, bulegora joanda egin daitezke gauza biak. Kuota helbideratuta

dutenei, berriz, banketxe bidez kobratuko dizkiete kontuok, kasu horretan, azaroaren 27tik aurrera. Horren harira, elkartetik gogora ekarri dute bazkide gehienek kuotak helbideratuta duten arren, badaudela hainbat helbideratu bakoak eta komeni dela horiek ere helbideratzea.

Karta jokoak eta otar zozketa

Abenduko ekitaldiekin bukatzeko, hilaren 13an, 14an eta 15ean karta-txapelketak jokatu dituzte, Tute, Briska eta Mus. Parte hartzeko, Itxaropenako tabernako iragarki-taulako zerrendan eman behar da izena. Azkenik, Gabonen atarian ohi denez, abenduaren 21ean 50 otar zozkatuko dituzte bazkideen artean. Eta, egun hori Santo Tomas eguna denez, txistor pintxoak banatu dituzte.

Egun bikaina

TESTUA ETA ARGAZKIAK: UBANE MADERA ZANGITU

Aurten ere, polito joan dira Gaztañerre azoka eta haren bueltakoak. Azokak txikitik segitzen du, baina bizirauteko asmoari utsita. Partaideek esan zuten saltzeko plaza oso ona dela. Artisauek oparo erakutsi zituzten saltokiak, ganaduzaleen behiak eta txahalak dotore ikusi ziren, sanandrestarrek bisitarien eztarriak eta urdailak ase zituzten etxeko jan-edanak guztiz agortzeraino, eta barazkigileek, gutxien izan arren, saltoki beteak ipini eta herritarrengandik erantzun bero-beroa jaso zuten. Urrats Dantza Taldearen saioak, euria izan arren, edukitako ikusle kopuruak ere dena esan zuen eta esan beharrik ez dago herri-bazkaria zein osasuntsu dagoen. Aurten, 150 lagunek parte hartu du eta gehiagok ere gustura hartuko lukete. Osagai guztiak ditu bada Gaztañerrek aurrerantzean ere errezeta ondu eta egun bikaina izaten segi dezan.





GUTUNAK

Plazentziako ondare historikoa

JOXEAN IÑURRIETA

Aurten, 450 urte betetzen dira Plazentzian armagintza industria hasi zanetik. Hori dela ta Felix Arizagak sinatutako "Armagintza Soraluzen" liburuaren aurkezpenean izan nintzan jua dan astian. Oparitu zoskuen alea irakurtzen hasi naiz eta 110. orrialdean Ramiro Larrañaga zanaren ekarpenarekin bat nator, Udalari eskaeria luzatuz: Errege etxea zanaren fatxadan zeguan eguzki erlojua (gaur egun zabor berezien ontzi zurixa dagoen tokixan) berreraiki eta ondoan honelako epitafioa jarri "Hemen egon zan Gipuzkoa ta Bizkaiko Armen Erret Fabrikian gremio-egoitza. Eraikina 1976an eraitsi zan".

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA





58. DURANGOKO AZOKA
2023ko abenduaren 6tik 10era



Errealitate bihurtu den fantasia

Badator 58. Durangoko Azoka

ABENDUAREN 6TIK 10ERA BITARTEAN IZANGO DA, 'FANTASIA DA!' LELOAREKIN

Euskal kulturaren egutegian ezinbesteko hitzordua den Durangoko Azokak abenduaren 6tik 10era bitartean izango ditu atek zabalik aurten.

Fantasia DA! leloarekin dator, Nerea Mujika Gerediagako geroak esplikatu duen moduan: "Fantasia da sortzaile berrien ilusioa, liburuen usaina, diskoen kolorea, kulturazaleen irribarra, boluntarioen lana, aspaldi ikusi gabeko lagunekin topatzea, sormen bakoitzaren istorioan dagoen magia, jende alaiaren barbaroa, bizigogoa, kulturaren beroa".

Dagoeneko 58 urte igaro dira azokaren hasierako bultzatzaileen amets hartatik, "fantasia hura errealitate bihurtu zen eta gaur egun euskal kulturaren egutegian ezinbesteko hitzordua dugu".

Mujikak gaineratutakoaren arabera, "Euskal kulturari bultzada emateko asmoz, Durangoko Azoka jendetsu eta aberatsa izatea, horixe da gure fantasia".

Mundu propioa sortu

Fantasia horren irudi eta isla, Ximon Agirre artistak sortutako kartelak ilustratuko du azoka, hiru dimentsioko irudi sakona baliatuz, errealitate birtualean landua. Kolore alai eta saturatuekin, Durangoko Azokaren festa izaera bistaratzeko helburua izan du. "Kartelaren ideia nagusia mundu propio bat sortzea izan da, azokaren elementuak (liburuak, musika, bideogintza, teknologia berriak...) pertsonaia fantastikoekin uztartuz", esplikatu du Agirrekerak.



Bisitari ugari izan zen iazko Durangoko Azokan. DURANGOKO AZOKA

Ikasle Goiza

Azokak abenduaren 6an atek zabaldu ondotik, hurrengo egunean, abenduaren 7an ikastetxeetako eta aisialdi taldeetako gazteei zuzendutako tailer, hitzaldi eta ikuskizunen egitaraua izango da, bestela esanda, Ikasle Goiza izango da.

Egun horretan Ikasle Goiza izan arren, azoka nahi duen guztiarentzat zabalik izango da 10:30etik 20:00ak bitartean.

Aurrez aurrekoaren alde

Osterantzean, aurten, Durangoko Azokak aurrez aurreko formatuaren erabateko apustua egin du, 2020an, pandemiak eragindako egoerak behartuta, abian jarri zuten online azoka ereduaren leihoa itxiz.

Antolatzaileek esandakoaren arabera, iaz, azoka presentziala indartu zuten, eta, erabiltzaileek

ere aukera hori lehenetsi zuten. "Hori dela eta, aurten aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dugu. Online ereduaren leihoa itxiko dugu. Hala ere, pertsona guztiz bota barik; izan ere, etorkizunean horren premia egonez gero, egoerara egokitzeko adierazgarria", esplikatu zuen Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkartearen koordinatzaileak.

Hurrengo astean zabalkundea

Horrekin batera, Gerediaga elkartearen ordezkariak gogora ekarri

"Aurten, aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dute, online ereduaren leihoa itxiz"



Aurtengo Durangoko Azokaren aurkezpena. DURANGOKO AZOKA

dute Durango Azokaren osteko astean, *Zu non, han DA!* ekimenaren bitartez, Euskal Herri osorako zabalkundeari jarraipena emango zaiola.

Zu non, han DA! ekimenari esker, Durangoko Azokako nobedadeak eskuragarri egongo dira Euskal Herriko hainbat liburu dendatan. Horietako zenbaitetan, gainera, liburu aurkezpen bereziak antolatuko dituzte.

Zortzi gune ditu azokak

Azokaren ezaugarriari dagokionez, berriz, 1990etik liburu eta diskoen azokara, kulturaren diziplina ezberdinak ordezkatzuz, gune bereziak lotzen joan zaizkio eta gaur gaurkoz, zortzi gunetan banatuta dago azoka: Saguganbara, Aho-tsenea, Irudienea, Szenatokia, Areto Nagusia, Kabia, Plateruena eta Azoka TB.

Lankidetzarako topaketak

Bestalde, Durangoko Azokaren bueltan, baina azoka zabaldu baino lehenago, sortzaileei eta programatzaileei zuzendutako *DA! PRO* aurrez aurreko bi topaketa egingo dira azaroaren amaieran, aurten bosgarren urtez.

Ekimen horren helburua da euskaraz jarduten duten sortzaileen eta programatzaileen arteko lankidetzaren sustatzea.

Hori horrela, *DA! PRO* topaketan, sortzaileek euren lanak erakutsi

Kabia, Saguganbara, Aho-tsenea, Irudienea, Szenatokia, Areto Nagusia, Plateruena eta Azoka TB dira guneak

ahalko dituzte sektoreko programatzaileen, kultur teknikarien, liburutegietako dinamizatzaileen eta bestelako profesionalen aurrean.

Horretarako, batetik, familia ikuskizunen aurkezpen laburrak egingo dituzte, Durangoko Bizenta Mogel bibliotekan, azaroaren 28an, goizez. Bibliotekaren beraren eta Berbaro euskara elkartearen laguntzarekin egingo dira aurkezpenok..

Bestetik, musikarien txanda azaroaren 29an izango da. Musika Bulegoarekin batera antolatutako ekimenean, urtean zehar Euskal Herriko kultur aretoetan ekintzak prestatzen dituzten programatzaileek bertatik bertara ezagutuko dituzte sortzaileen lanak. Plateruena kultur aterpean izango da topaketa hori, 09:00etatik 14:00etara.



Amorante. JON GARATE

Elgoibartik Durangora sorkuntza lan oparoa

Oparoa izan da aurten ere Elgoibarko sortzaileen uzta, bereziki literaturan, eta lan gehienak Durangon izango dira salgai. Hala ere, azokak bere eskaparate propioa izango du Elgoibarren ere.

Saiakeran estreinatu da Jasone Osoro, eta *Arrakasta* izeneko liburua eman du argitara, Elkar argitaletxearekin. *Arrakasta* lortu duten hamaika laguni egindako elkarrizketak, bere oroitzapen eta esperientzia propioak eta zenbait autoreren aipu eta esanak bilduta osatu du liburua.

Uxue Alberdi, bestalde, bi lan berriekin dator: *Belarriko kilkerra* eta *Surflaria*. Bizitzaren eta heriotzaren urek bat egiten duten istorioa da *Surflaria*, eta Susana Martin komikilariarekin batera argitaratu du (*Ikastolen elkarte*). *Belarriko kilkerra*, bestalde, narraitza liburua da (*Elkar*). Ahoz kontatu eta belarriaz jasotako testuak dira liburukoak, eta ahozkotasuna, memoria, transmisioa eta giza

kondizioaren oinarriak biltzen dituzte. Begoña Durrutyk ilustratu du liburua. Horrez gain, taldean sortutako beste lan batean ere hartu du parte Alberdik, eta talde horretan egon da baita ere Daniele Sarriugarte elgoibartarra. *Zirriborroak* eta *gero* idatzi dute hamar lagunen artean. Etorkizuneari pentsatzeak ziurgabetasuna kudeatzen laguntzen du, eta, ildo horretan, etorkizunaren dekalogo bat proposatzen digu liburu honek.

Olaia Irigoien ere idazle paperean estreinatu da 2023an. *Inesa Gaxen* ipuin ilustratua argitaratu du, Adapta argitaletxe kataluniarrekin. 6-8 urte bitarteko umeentzako ipuina da, eta Inesa Gaxenen bizitza kontatzen du. XVI. mendean jaio zen Nafarroa Beherean, eta

sorgintzat hartu zuten. Epaitua eta torturatua izan zen, baina hala ere, ez zuen inoiz sorgina zela onartu.

Musikari dagokionez, Iban Urizar Amorante izango da Elgoibarko ordezkaria Durangon. *Harri, Herri, Har* diskoa kaleratu du Amorantek, Forbbiden Colours argitaletxearekin. Hiru zutaberen gainean eraiki du diskoa, (*Harri, herri, har*) herri musikaren orube malgua oinarri duela. Kanpaiak, malenkonia, festa, animaliak eta poesia ageri dira. Hainbat musikari izan ditu Amorantek bidelagun: Felix Buff eta Hasier Oleaga bateria jotzaileak, Hatxeren pianoa, Xabier Zeberioeren hariak, Los Sara Fontan bikoaren fantasia eta Amaia Mirandaren gitarra, besteak beste.

Durangoko Azoka, Pitzintxun Duragon ez ezik, Euskal Herriko herrietako dendak ere izaten dira Durangoko Azokaren eskaparate, eta sormen lan batzuk herrietako liburu dendetan aurkeztzen dituzte, *Durangoko Azokak* izeneko egitasmoaren barruan. Elgoibarko Pitzintxu opari dendak ere hartuko du parte ekimenean, eta Goiatz Labandibar (*Oiartzun*, 1985) idazleak bere azken lana aurkeztuko du bertan: *Bekatua*. Biharamun emozional baten kontakizuna da. Ezezagun baten ohean esnatu da Garazi eta horrek bere ordurako bizimodua, harremanak, ziurtasunak eta usteak irauliko ditu. Abenduaren 13an izango da aurkezpena eta ordura aurrerago zehaztuko dute.

Elgoibarko sortzaileek ere beraien azken lanak erakutsiko dituzte Durangoko Azokan



Hitz jokoetan aditua eta aritua izan zen gazte ermuarra.

Markos Gimenoren sormena ikusgai

Joseba Sarrionandiak Markos Gimenoren 101 letrakartel liburua aurkeztuko du Durangoko Azokan, abenduaren 8an.

Markos Gimeno *autore erotua* da, eta horra hor liburu honetan agertzen den lehen palindromoe-tako bat, hau da, aurretik atzera eta atzetik aurrera berdin-berdin irakurtzen den hitz, zenbaki edo perpausa. Kasualitateak sortu-takoak direla eman dezakeen arren, hitz joko horien atzean irudimen eta sormen esparru zabala dago, eta mundu horretan bere saltsan ibiltzen zen Ermuko gaztea.

Joseba Sarrionandia idazleak duela bi urte ezagutu zuen Markos Gimeno ermuarraren lana eta, liluratuta, haren "jenialtasuna" munduan zabaltzeko erabakia hartu zuen: "...harrigarria iruditu zitzaidan Markosek sortutako obraren grazia. Are ikaragarriagoa iruditu zitzaidan momentuan ia ezezaguna izatea, euskal mundutxoan ere, Ermutik

edo Eibar aldetik kanpora", azaldu du Sarrionandiak liburuaren hitzaurrean.

Sortzailearen inguruan beti izan den senide eta lagun sare horretara hurbildu zen idazle iurretarra, eta lana biltzeari ekin zion, baina ez Markosen lan guztiak liburu-kote baten bildu eta argitaratzeko, baizik eta bere obra "kalepsiatik atera, eta haren lanaren parte bat behintzat, palindromoen, euskal hitzunen artean (...) ezagutarazteko; iratzarri, bizkor-tu eta zabal dadin".

Horrela sortu zen Markos Gimeno-ren 101 letrakartel, Markosen palindromoekin hainbat marrazkilarik, grafiterok eta argazkilarik egindako ehunetik gora kartel biltzen dituen. Kolaboratzaile hauen artean daude, besteak beste, Esther Astarloa, Jose Antonio Azpilikueta, Sonia Garcia, Gorka

"Kartel palindromiko bakoitza (...) jolas liluragarri bat izango da edozeinen gogo ernearentzat"

González, Exprai, Santos Vega, Monti, Klemen Corredera edota Tono Fernandez. Guztira, ia 40 lagunek parte hartu dute, lanari askotariko ikuspuntu eta ukituak erantsiz. Material guzti hau batu eta forma eman, edizio grafikoa alegia, Esteban Montorio diseinatzailearen esku utzi da.

Markosen inguruan

Markos ezagutzen ez zutenek haren bizitzaren gorabehera guztiak, edo gehienak, topatuko dituzte liburuaren lehen berrogeita hamar orrietan, inguruko enahotsek kontatuta. Hona hemen liburuaren erreseinan topatu daitekeen aurkezpen laburra: "Markos Gimeno Vesga 1974ko maiatzaren 3an jaio zen Ermuan. (...) Bere bizitza sorkuntzara bideratu zuen, nahiz eta bipolaritate gaitasuna eta depresioaldiak jasan. Bere buruaz beste egin zuen, azkenean, Eibarren 44 urte zituela, 2018ko abenduaren 7an.

Markos bizi osoa (...) sortzen ibili zen euskal komunitatearentzat (eta humanitate osoarentzat, jakina). Haren kartel palindromiko bakoitzak sorpresa linguistikoa bat aportatzen du, eta jolas liluragarri bat izango da edozeinen gogo ernearentzat".

Liburua eskuratu

Liburua irakurri nahi dutenek Durangoko Azokan eskuratu ahal izango dute. Era berean, Ermuko eta Eibarko liburu-dendetan salgai jarriko da, hala nola Interneten ere.



Pop, folk, elektronika eta sustraiko musika dira nagusi Izaroren azken diskoan.

Izarok aro berri bati emango dio hasiera

Mallabiko abeslariak Durangoko Azokan aurkeztuko du bere bosgarren diskoa, *Cerodenero*, hala nola bideoklip berria

"Bi urte eta zertxobait gehiago egon gara *Cerodenero* eraikitzen. Hasieran, nik bakarrik hasten dut beti ibilbidea eta bidetik jendez inguratzen noa elur bola txiki bat bezala, handi-handi heltzen dena mendi magalera". Hitz horiekien laburtzen du Izaro abeslariak *Cerodenero* diskoa sortzeko prozesua, eta abenduaren 8an berau osatzen duten hamabi abestiek argia ikusiko dute Durangoko Azokan.

Abeslariak aurreratu duenez, *Cerodenero* album kontzeptuala zirrargarria eta bizia da. Berak burututako barne-bidaia da, eta, bertan berreskuratzen ditu pop, folk, elektronika eta sustraiko musika doinuen kontrastez beteriko mihiseak, lehen estrofatik harrapatzen duten poesia eta metafora zertzeladak dituztenak. "Izarok bere alderik argitsuena erakusten digu, baina baita ba-

satiena ere, aro berri beti hasiera emanetz", adierazi dute zabaldu-tako prentsa oharrean.

Diskoak hamabi abesti biltzen ditu eta horietako lau entzungai daude dagoeneko hainbat plataformatan eta ikusgai YouTubean: *introa*, *Zero*, irailean estreinatuz; horren ostean, *x eta bestea*k zabaldu zen; urrian, *Campamento base* eta azaroan, *Iparraldera*. Abenduaren 8an, bosgarren bideoklipa estreinatuko du, Durangoko Azokako Irudienean, 13:00etan. Horrez gain, standa izango du Azokan, eta bertan egongo da egunero, sare soziale-tan jakinarazi duenaren arabera.

Aurrezalmenta

Izarok bi formatutan kaleratuko du *Cerodenero*: biniloan (35 €) eta CDan (18 €); eta bere webgunean eros daiteke dagoeneko (www.izaromusic.com), abeslariak aurrezalmentari ekin baitzion urriaren 10ean. Bide hau erabiltzen dutenek abenduaren 8tik aurrera jasoko dute diskoa, abeslariak sinatuta.

Durangoko Azokan erosten dutenek ere Izaroren sinadura eramango dute *Cerodenero*ren azalean.

Aurkezpen bira

Durangoko hitzordua eta gero, aurkezpen birari ekingo dio Izarok. Hala, urtarrilaren 2an Bilboko Euskalduna Jauregian joko du; 3an eta 4an Donostiako Kursaal Auditorioan; 13an Las Palmaseko Sala Insular de Teatron akustikoa eskainiko du eta 20an akustikoa baita ere Pozuelo de Alarconeko Inverfest Teatro Miran. Otsailaren 3an Gasteizko Principal Antzokian egongo da; 9an Bartzelonako Apolo aretoan; martxoaren 2an Sevillako La Cartujan joko du, eta iragarrita dagoen azken kontzertua martxoaren 18 burutuko da, Iruñeako Baularten. Sarrerak salgai daude dagoeneko.

Izarok iaz kaleratu zuen bere azken diskoa, *Limones de oro*, Amaral, Xael López, Zahara eta Rozalen bezalako artistekin batera grabatutakoa. Haiekin batera, estatu osoan zehar bira egiteko aukera izan zuen eta Helsinki, Paris, Mexiko Hiria eta Buenos Aires bezalako hiriburuetan egon zen. Disko hari lotutako biran, Anoetako Belodromoko sarrerak agortzea lortu zuen, hori egitea lortu duen lehen emakumea izanik.

Urtarrila eta martxoan bitartean aurkezpen bira burutuko du, eta sarrerak salgai daude dagoeneko



Jon Artanok 'Juana' liburua plazaratu du



Jon Artano zestoarra 'Juana' liburuaren aurkezpenean, Donostian. ELKAR

Jon Artano Izeta kazetariak (Zestoa, 1978) bere lehen liburua argitaratu du, *Juana*, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Tene Mujika bekaren laguntzaz. Kazetaritza "su geldoan" egin nahi zuen Artanok eta horretarako baliatu du beka. Azken asteotan Donostian, Deban eta Zestoa aurkeztu du

emaitza eta Durangon egingo du beste aurkezpen bat, abenduaren 8an (19:00etan).

Juana Perea Plata da liburuiko protagonista, 1937an Bilbotik ihesi Bogotara iritsitako euskal familia batean jaiotako "ardi beltza", legendazko emakume bat. Nera-be zela, etxetik alde egin zuen Karibera. Urpekari profesional

bihurtu zen, belaontzietan bizi izan zen, telebistan produktore lanak egin zituen, Afganistanen ibili zen gerran, hotel bat eraikitzen hasi zen gero... "Oso noizean behin sortzen diren pertsona horietako bat izan zen Juana", laburbildu du Artanok. "Abenturazalea, ausarta, mugarik ezagutzen ez zue-na, mugak topatuz gero mugak pasa egiten zituena, erakarpin indar handikoa... Bere senide bat-ek esan zidan bezala, urakan bat zen". 2020ko urriaren 29an tiroz erail zuten Kolonbian, "agian marra bat baino gehiago gainditu zuelako, agian gehiegi nabarmen-du zelako".

"Nahikoa bere horretan"

Artanok Anderik Ande izeneko proiektuarekin irabazi zuen iaz Tene Mujika beka. Ameriketako ibilitako hainbat euskaldunen kontuak eta Euskal Herriaren dabil-tzan hainbat amerikarrenak jasotzea zen hasierako asmoa eta sei hilabeteko bidaiari ekin zion Argentinan, Txilen, Bolivian, Perun, Ekuadorren eta Kolonbian. Azkenean, ordea, Perearen eta haren familiaren istorioari eman dio li-buru osoa, "liburu izateko nahikoa zelako bere horretan".

Tene Mujika eta haren ekarpena, argitara

Tene Mujika bekaren fruitu diren liburuez gain, Robustiana Mujika Egaña, *Tene* (1888-1981) idazle eta olerkari debar-raren irudia eta lana ezagutzera emateko bestelako argitalpenik ere izango da aurten azokan. Otsailean aurkeztutako *Tene Mujika* emakumea. Pizkundetik ahanzturara. XXI. mendetik ateratako postargazkiak ikerlana da adibideetako bat.



Nekane Goikoetxea. AIURRI

Mondragon Unibertsitateko irakasle Nekane Goikoetxea Agirrek (Deba, 1970) osatu da lana. Helburua bikoitza izan da. Batetik, Tene Mujika bere garaian kokatuta eta haren soziobiografia aintzat hartuta, bere ekarpenari balio handiagoa eman nahi izan dio egileak; bestetik, Mujikaren azterketan genero ikuspegia txertatu du. Eusko Jaurlaritzaren Berdintzen bekarekin ondu du ikerlana Goikoetxeak.

Sei disko Gaztelupeko Hotsak diskoetxetik

Euskal musika doinu latinoekin, jazz-a, euskal tradizioaren eta melodien egokitzapenak, Nick Caven bertsoiak... denetarik izango da

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak sei disko izango ditu aurtengo Durangoko Azokan, Zabaltzenen standean.

Sei disko horietatik bi Gaztelupeko Hotsak zigilupean argitaratutakoak dira: Txuma Murugarren entzutetsuarena eta Ache Pa Ti taldearena. Beste laurak, berriz, Errabal Jazz zigilupean argitaratu dituzte: Javier Lopez Jaso, losu Izaguirre Sextet, Giulio Ottanelli Quartet eta Nevermind Quartet.

Txuma Murugarren: Gautegia
Gaztelupeko Hotsak-eko Joxe Felix Azkarate Xarrak nabarmendu duenez, "Gautegia/Nocturama Txuma Murugarrenen diskografiaren mugarri da orain eta gaurtik aurrera. Bere Nick Caverekiko mirespen eta lilura azaltzeaz gain, Txuma bera, egile eta sortzaile berezi bezala dagokion lekuan jarri dezakeena eta jarriko duena. Handien artean, nola ez."

Ache Pa Ti: Bilakatzen

Jazz latino eta kubatar sustraiko musikarekiko zaletasuna Euskal Herriko kultura eta folklore tradizionalarekin uztartzen dituen Ache Pa Ti talde iruindarrak, berriz, *Bilakatzen* izeneko bigarren diskoa argitaratu du. Bertan, "bereziki deigarria da txistuaren presentzia eta garrantzia, bera baita nagusi eta gidari doinu gehienetan, erraztasun eta naturaltasun txundigarritz moldatuz era guztietako doinu eta erritmo latinoetara. Ache Yoruba hizkun-



Txuma Murugarren.

tzako hitza da eta *Ache pa ti* esarak zorte on eta zoriontasun nahia adierazten du", azaldu du Xarrak.

Javier Lopez Jaso: Zimelezin

Bestalde, Azkarateren esanetan, Oiartzungo Mecca estudioetan grabatutako proposamenarekin dator Javier López Jaso soinu-jole nafarra *Zimelezin* diskoarekin. Mikel Andueza saxofonista, Marcelo Escrich kontrabaxua eta Dani Lizarraga bateria-jotzailea moduko musikari eta lagun handiez inguratuta, bidaia moduko bat planteatzen du. "Javier beraren kantu originalekin batera, euskal tradizioaren erritmoen eta me-

lodien egokitzapen bikain eta sofistikatuak, eta mitologia kutsuko kantu herrikoiak (Axuri Beltza, Txoria txori) aurki ditza-gegu bertan".

Iosu I. Sextet: Mingus Mood

Iosu Izaguirre Sextet taldeari dagokionez, "Mingus maisuaren musika disezcionatu eta osagai txiki eta sinpleenetara murriztu du, haiekin omenaldi moduko eraikiz eta "guztiz Mingus" bat aurkeztuz", dio Gaztelupeko Hotsak-eko Xarrak. Gaineratutakoaren arabera, Iosu Izaguirrek konposatutako zortzi doinuz osatutako lana da *Mingus Mood*, Gasteizen 2022an grabatuta, Vital Fundazioaren Araba Aretoan.

Giulio Ottanelli Quartet

Getxoko Jazzaldien 46. edizioan talde onenaren saria Giulio Ottanelli laukoteari eman zitzaion. Parisko goi mailako kontserbatorioan ezagutu zituen Jeremie Lucchese (saxo tenorra), Cyril Drape (kontrabaxua) eta Emile Rameau (bateria), eta eurekin sortu zuen laukotea; eurak ere izango dira presente Durangoko Azokan. "Taldearen musika, euren emanaldiak hain erakargarri egiten dituzten melodia luzeetan oinarritzen da", dio Xarrak.

Nevermind Quartet

Azkenik, Xarrak nabarmendu duenez, Euskal Herriko jazz eszenan presentzia handiko musikariak dira Nevermind Quartetekoak. Hasier Oleaga The Heckler-en, Teresa Zabalzaren boskotean edo Ruper Ordorikaren eta Mikel Laboaren ondoan aritu izan da, Julen Izarra Trizak taldean, Jorge Abadias hainbat ekimen biltzen dituen ibilbide luzearen jabe da eta Aritz Luzuriaga Bilboko JC Arriagako kontserbatorioko irakaslea da, besteak beste.



Debabarreneko uzta



NEREA LOIOLA PIKAZA
‘Idatzi behar nizkizunak’
Erroa argitaletxea.




NEREA LOIOLA PIKAZA
‘Azken denbora’
Bilduma: Eskapu liburuak, 2. Erein argitaletxea.



ANE BASTIDA LIZASO
‘Hideane eta bere lagunak’
Ilustrazioak: Nadia Beltran de Lubiano. Denonartean argitaletxea.



GOIZANE AIZPURUA IBAÑEZ
‘El reflejo de la tibieza’
Alberdania argitaletxea.



JON ARTANO IZETA ‘Juana’
Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.



NEKANE GOIKOETXEA AGIRRE
‘Tene Mujika emakumea.’
Pizkundetik ahanzturara: XXI. mendetik ateratako postargazkiak’
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



TIRO 'Gure irtenbidea'
TAE Records diskoetxea.



JOKIN BERGARA 'Adaxka lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak'
Txalaparta argitaletxea.



KVALVIKA 'KVK'



OLAIA IRIGOIEN 'Inesa Gaxen'
Adapta argitaletxea.

OLAIA IRIGOIEN 'Misión Don Quijote y Sancho Panza'
Adapta argitaletxea.




UXUE ALBERDI ETA DANELE SARRIUGARTE 'Zirriborroak eta gero'
Consoni argitaletxea.



UXUE ALBERDI 'Surflaria'
Ikastolen elkarte.



UXUE ALBERDI 'Belarriko kilkerra'
Elkar argitaletxea.



JASONE OSORO 'Arrakasta'
Elkar argitaletxea.



MUSIKA



AMORANTE 'Harri, herri, har'
Forbiden colours argitaletxea.

MALLABIA

MUSIKA



IZARO 'Cerodenero'

ERMUA

LITERATURA



TXABI ARNAL ETA EDU ZELAIETA
'Gora gure alkate jakintsua!'
Elkar argitaletxea.



JOSEBA SARRIONANDIA 'Markos Gimenoren 101 letrakartel'
Pamiela argitaletxea.

SORALUZE

MUSIKA



TXUMA MURUGARREN 'Gautegia'
Gaztelupeko Hotsak.



ACHE PA TI 'Bilakatzen'
Gaztelupeko Hotsak.



JAVIER LOPEZ JASO 'Zimelezin'
Errabal Jazz.



IOSU IZAGUIRRE SEXTET 'Mingus Moods'
Errabal Jazz.



GIULIO OTTANELLI QUARTET
'Getxo Jazz 2023'
Errabal Jazz.

NEVERMIND QUARTET 'Boost lau gara'
Errabal Jazz.

MUZAK 'Irabaziak eta galerak'

"Daukagun zarata guztia aterako dugu Ahotsenean"

JOANES IÑURRIETA BOKALISTA

Ahotseneako oholtzan izango diren 49 taldeen artean, bat, Muzak, Debabarrenekoa da. Abenduaren 10ean, 15:40an egingo dute zuzenekoa.

Muzak taldeko Joanes Iñurrieta (Soraluze, 1991), Ruben Irigoyen (Elgoibar, 1991) eta Aitor Sagarremendi (Mutriku, 1994) "pozik" daude aurten Durangoko Azokako Ahotsenean egon ahal izatea lortu dutelako. Joanes Iñurrieta taldeko bokalista soraluzetarrak azpimarratu du Durangon taldeak duen "zarata guztia" aterako dutela.

Ahotsenean kontzertua eskaintzea beste jauzi bat izango da Muzak taldearendako?

Durangoko Azoka, Euskal Herri mailan, oso hedabide ona da, artista baldin bazara, batez ere. Urteko ekimenik potenteena da kulturalki musikaren eta liburuaren arloan eta hor egotea oso garrantzitsua da. Iaz, saiatu ginen *Programaturik* lanarekin Ahotsenean sartzen, baina ez genuen lortu. Aurten pozik gaude lortu dugulako eta han egongo garelako.

Zer eskainiko duzue Ahotsenean?

25-30 minutuko kontzertua izango da, lauzpabost abesti joko ditugu guztira. Ez da izango kontzertu akustikoa. Daukagun zarata guztia aterako dugu.

Denetik joko duzue?

Aurten atera dugun *Irabaziak eta Galerak* (Gaztain Estudioak) EPan oinarritutako zuzenekoa izango da eta oporren aurretik publikatu genuen *Gezur Mila* singlea ere sartuko da. *Irabaziak eta Galerak* EPari dagokionez, *Programaturik* (Gaztain Estudioak, 2021) laneko abesti guztiak ere baditu.

Bigarren EPan zuen bi lanetako kantu guztiak batu dituzue?

Bai. Kontua da lehen diskoarekin, *Programaturik*-ekin ez genuela atera disko fisikoa eta gero damutu egin egin ginela. Hala, *Irabaziak eta Galerak*-ekin CDa atera genuen. CD horrek dauzka lau abesti berri

gehi bonus modura, *Programaturik*-eko zazpi abestiak gehigarri.

Eta zuen CD hori erosteko aukerarik izango da Durangoko Azokan?

Bai. *Irabaziak eta Galerak* salgai egongo da azokako Musika Zuzenenean-en standean.

Zergatik damutu zineten diskoa atera ez izanaz?

Disko fisikoa gaur egun ez da asko saltzen, baina gertatu izan zaigu momentu puntualetan jendeak eskatu izana eta pena horrekin geratu ginen, fisikoa nahi duen horri diskoa ezin emanarekin,

"Durangoko Azoka da urteko ekimenik potenteena musikaren eta liburuaren arloan"





guretzat zerbait berezia ere bada guri disko fisikoa eskatzea. Tabernetan edota aretoetan lagatzeko ere aproposa da... Kasu gutxi izan arren, CD fisikoa ateratzeak me-rezi zuela erabaki genuen. Ehun ale atera genituen, hogeitik behera geratzen dira eta oraingoz ez dugu kopia gehiago ateratzeko asmorik.

Gezur mila singlea uda aurretik dago entzungai, zelako harrera izaten ari da ?

Harrera oso ona izan dugu. Hori ikusi dugu plataforma digitaletan, oso ondo kontabilizatzen dira entzunaldiak. Spotifyn, adibidez, erreproduktzio gehien izan dituen Muzak-en abestia da. Horrez aparte, kritika onak izan ditugu, batez ere gertuko jendearenak. Gure soinutik jarraitzen dugu. Taldearen nortasun propioa erakusten du.

Zein da zuen nortasun hori?

Hirurok oso gaztetatik izan dugu bereziki distorsionatutako gitarrekiko predilekzioa hori, talde ezberdinak entzuten ditugun arren. Nik Pop-Rock-era egin izan dut beti gehiago eta Ruben eta Sagar-ek Metal-era (progresiboa, death, doom...). Gainera, proiektu oso ezberdinetan izandakoak gara Muzak sortu aurretik.

Zergatik uste duzu azken single horrek izan duela arrakastarik handiena?

Musikari moduan pauso txikiak ematen goaz pixkanaka-pixkanaka eta geroago eta difusio handiagoa lortzen ari gara. Horrez

"Gezur mila da erreproduktzio gehien dituen Muzak-en abestia"

Aitor Sagarmendi, Joanes Iñurrieta eta Ruben Irigoyen.

MUZAK

aparte, abesti ona da, denbora inbertitu dugu single horretan, lana dauka eta entzuteko gustoso da. Bestalde, saiatzen gara konstantzia mantentzen, abestiak publikatzerakoan, sare sozialetan idazterakoan... Hor egon behar duzu, bestela...

Sare sozialak zaintzen ibiltzen zarete, justu zuek 'Gezur Mila' kantuan kritikatzeko dituzuen sare sozial horiek...

Bai, abestiak kritika hori egiten du. Kontziente gara sare sozialek pertsonengan duten eraginean, baina horren konplize ere bagara. Paradoja moduko bat da.

Urrian eskaini duzue aurtengo biraren azken kontzertua; non egon zarete gusturen?

Su ta Garrekin Elgoibarren, edo gustuko ditugun bestelako taldeekin. Adibidez, Bergarako Kartzela Zaharrean Sofa eta Dena taldeekin jo genuen.

Abenduan Ahotsenean jo ondoren, baduzue bestelako asmorik taldearendako?

Zuzenean jotzea. Normalean ez diegu ezezkorik ematen joteko aukerei eta beti gaude zabalik proposamenetarako. Bestalde, sortzen ere hasi gara dagoeneko. Ez dugu erabaki zer izango den, diskoa ala singlea, baina sortzen ari gara eta hori garrantzitsua da. Sortutako lanaren helburua gure buruak asebetetzea izaten da, eta ez da erraza izaten oso zorrotzak garelako horretan.

"Krisi ekologikoak krisi sozialak eragiten ditu gizarte kapitalista honetan"

JOKIN BERGARA SOZIOLOGOA ETA IDAZLEA

Gogoeta soziologikoak, politikoak eta pertsonalak tartekatuz, trantsizio ekosozialaren tentsio-ardatzak aurkezten ditu eibartarrak 'Adaxka lehorrak' liburuxkan. Abenduaren 8an, 17:30ean, izango da aurkezpena.

"Adaxka lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak" da liburuaren izenburua. Biharamun horiek bizi ditugu dagoneko? Heltzeaz daude? Zein momentutan aurkitzen gara?

Talka ekosozial hori pizten ari gara eta biharamunaren kontzeptua erabili dut, modu metaforiko baten esateko horrek ondorio sozial eta politiko batzuk ekarriko dituela eta ekartzen ari dela jada. Krisi ekologikoan sakondu ahala, geroz eta maiztasun eta indar gehiagorekin joango gara bere ondorioak ikusten, bai klimaren aldetik, bai krisi energetikoaren aldetik, baita ondorio politikoen aldetik ere. Azken horrekin lotzen dira faxismoaren gorakada eta Europako egoera gatazkatsu eta gerrazalea, besteak beste.

Krisi ekologikoa aztertzeaz gain, zer bide zabaldu daitezkeen irudikatzen saiatu zara. Zeintzuk dira bide horiek?

Gai hau bada beldurra sortu dezakeen gai bat. Batzuek paralizatzailea dela diote. Beraz, eraldaketan sinesten dugunok, eraldaketa horri bizirik eusteko aldarria egiten dugu liburuan. Eta zer bide hartu dezakegun? Hainbat proposamen egiten dira. Adibidez, industria, gaur ezagutzen dugun bezala (Debabarrean makina-erremintari eta automozioari oso lotuta dagoena), oso sektore kutsatzailea da, eta liburuan ariketa bat egiten da birmoldaketa nola egin pentsatzeko, ikuspegi demokratiko batetik. Hau da, trantsizio ekosoziala erabiltzea enpresak

"Krisi ekologikoaren ondorio dira faxismoaren gorakada eta Europako egoera gatazkatsua"

demokratikoagoak izateko (aberrastasuna gehiago banatzeko lanegileen artean, adibidez). Horrela, behar dugun trantsizio kulturalari bideratuta dago liburuaren zati handi bat. Gaur egun 'bitzita ona' bezala identifikatzen dugun horri eta gure identitatea erakitzeke erabiltzen ditugun ekintza horiei kritika egiten zaie (kontsumoari, oporretara joateko 10 orduko bidaiak egiteari, auto eta etxe berriak erosteari...). Gure identitatea erakitzeke beste mekanismo batzuen beharra agertzen da, lasaiago bizitzeko aldarria, eta gutxiagorekin bizitzea ez dela zertan izan okerrago bizitzea, baizik eta hobeto bizitzea, denbora gehiago izan dezakegulako lagunekin egoteko, gurasoak edo seme-alabak zaintzeko, irakurtzeko edo gustuko dugun edozer gauza egiteko.

Beraz, trantsizio ekosozialak hainbat arlo ezberdin zeharkatzen ditu?



Abenduaren 8an aurkeztuko du liburua Bergarak Durangoko Azokan. TXALAPARTA

Bai, noski. Hori da krisi ekosozialaren ideia. Hau da, badago krisi material bat, ekologikoa bezala definitu daitekeena zientifikoki (klima aldaketa, biodibertsitatearen galera, energia krisia, baliabideen agortzea...); eta gero, alde soziala dago, oinarri material guzti horren krisiak krisi sozialak eragiten dituelako sistema kapitalista honetan. Hor sartzen da gizartea beste modu baten antolatzeke eztabaida eta, noski, politika, soziologia, historia, ekonomia, zuzenbidea... Denetik, azken neurrian.

Liburua Euskal Herrian kokatzen da edo mundu mailako arazoak lantzen dituzu?

Krisi ekosozialari Euskal Herrikit begiratzen saiatu naiz, jakinda maila globalean adierazten den gaia dela. Gure herriaren ezaugarriak kontuan hartuta, Euskal Herrira ekartzen saiatu naiz, eta honek gure herrian zein tentsio

nagusi sortzen dituen. Adibidez, energia berriztagarrien inguruan dagoen eztabaida hau da: "jarriko ditugu?", "ez?", "non?". Nire ustez, zabaldu behar den eztabaida hurrengo izan behar da: Energia berriztagarriak lortzeko behar ditugun mineralak hegoalde globaletik ateratzen ditugu, nolabaiteko neoestraktibismo prozesuetatik, eta gure trantsizio berdea pentsatzeko herrialde horiekin nola harremandu beharko ginatekeen eztabaidatu beharko genuke. Adibidez, Ekuadorreko Amazonian badago egur mota bat oso ona omen dena haize-erroten

"Ekuadorreko Amazonia ari gara deforestatzen gure trantsizio berdea egiteko"

palak ekoizteko (asko irauten baitute eta ez direlako azkar higitzen). Orduan, gertatzen ari dena da Europako eta AEB-ko enpresak sartu direla han lehengai hori erostera eta, ondorioz, Ekuadorreko Amazonia ari garela deforestatzen gure trantsizio berdea egiteko. Paradoxikoa da.

Liburuxka arina egiten saiatu zarela aipatu izan duzu. Gaia gehiago garatzeko gogoarekin geratu zara?

Liburuxka hauen helburua (eta hortik bere formatua) eserialdi baten irakurtzeko modukoak izatea da. Hau da, arratsalde baten hiru-lau ordutan irakurtzeko modukoak izatea. Idazteko eskatu zidatenean hori izan zen arazoa: zertan zentratu, zeri garrantzia eman... Orduan, liburuxka motza denez, laburtzea pixka bat kostatu zait eta, agian, gauza batzuk behar duten sakontasunik gabe joan dira, baina tira, sintetizatze lan batek hori eskatzen du.

Beraz, oso sakona den gai bati heltzeko balio dezake? Krisi ekosozialaren inguruan sakontzen hasteko baliagarria da?

Hori da. Ez da gaiaren inguruko doktoretza tesi bat. Gehiago da gai honetan hasi nahi duenak edo interesa duenak hartzeko eta modu azkar baten gaian sarrera bat edukitzeko.

Ahotseneako musika egitaraua

Asteazkena 06



NØGEN 11:00-11:30

KONPOST 12:10-12:40

ESANEZIN 13:20-13:50

LILLO 14:30-15:00

POSTAL KOLEKZIONISTAK 16:50-17:20

AKALEIA 18:00-18:30

YOGURINHA BOROVA 19:10-19:40

MARLIK 20:20-20:50

ARIMA 21:30-22:00

Osteguna 07

XABI SAN SEBASTIAN 13:20-13:50

KADIRA 14:30-15:00

BRAULIO 15:40-16:10

MURGI 16:50-17:20



MOXAL 18:00-18:30

ZATIBI 19:10-19:40

ZEKER 20:20-20:50

EZEZEZ 21:30-22:00

Ostirala 08

LOTURA 11:00-11:30

EIDER 12:10-12:40

EIRE 13:20-13:50

MIREN ETA ROBERTO

ETXEBARRIA 14:30-15:00

NAKAR 15:40-16:10

ITHAKA 16:50-17:20



SARA ZOZAYA 18:00-18:30

TXOPET 19:10-19:40

SILITIA 20:20-20:50



TOC 21:30-22:00

Larunbata 09

KE LEPO 11:00-11:30

TRB 12:10-12:40

AMORANTE 13:20-13:50

LEIHOTIKAN 14:30-15:00

HAIZE-ARROSA 15:40-16:10

OTOI 16:50-17:20



ETXEPE 18:00-18:30

RUKULA 19:10-19:40

FELINE 20:20-20:50



IBIL BEDI 21:30-22:00

Igandea 10

INTZA 11:00-11:30



MAMU 12:10-12:40

KARMA 13:20-13:50

HAIRA 14:30-15:00

MUZAK 15:40-16:10

KUMA NO MOTOR 16:50-17:20



MODUS OPERANDI 18:00-18:30

KEMARONTE 19:10-19:40

MUARE 20:20-20:50

JABI PATXON ETA KOFRADIA

ROCK 21:30-22:00

HAUSNARKETA

Zelan ikusten duzu zaintzen gaia?

Azaroaren 30erako Greba Feminista Orokorra deitu dute, zaintzarako eskubide kolektiboaren alde



ELENA PLAZAOLA

"Egoitzak pribatizatuta edo partzialki pribatizatuta badaude, ez dituzte ematen erremintak ondo zaintzeko, dena da dirua irabaztea eta murriztea. Sorraluzeko egoitzan, adibidez, hemengo produktuekin egindako jatordu oso onak egoten ziren. Orain, dena plastifikatuta dator".



KRISTINA ARIZAGA

"Orain 10 urte erretiratuta nago osasun lanetatik. Okertu egin dira osasun zerbitzuak. Txandak oso berandu, espezialistengana ez bidali... Zaintzei dagokienez, ama egon zen egoitzan. Diru asko ordaintzen da eta, aldiz, ama ez zuten ez mimoz ezta ondo zaindu, sentsibilitatea falta zen..."



GOTZON EPELDE

"Niri ez zait tokatu zaintzak egin beharrik edo hartzerik, baina ikusten dut andreak gehiago dabilzala lan horietan eta pentsatzen dut gutxi pagatutako lanak izango direla. Orokorrean, uste dut laguntasun gehiago egon beharko liratekeela".



JUAN MANUEL RODIÑO

"Alaba Haurreskolara eraman genuen ezin genuelako zaindu eta pozik gaude. Laster tokatuko zait ama zaintzea. 86 urte ditu. Ahal dudan bitartean nik zainduko dut, bestela egoitzara eramango dugu. Emaztearen amama egoitzan dago; eramateko zalantzak zituzten, baina bera pozik dago".

PUNTUA



GARAIZ ARIZAGA

Esker publiko bat

Azken boladan, gure herritik pasatzen dan ibaia eta, bereziki, bere egungo dispozizioa aldatzeko proiektua aurkeztu jaku. Ibaia naturalago izan dadin lelopean dator, baina badirudi horren ondoren baleudela ibaian egiteko beste hainbat zeregin eta, beraz, gutzia kontuan hartu behar.

Hori aztertzeke lanean ari da hainbat herritarrez osatutako talde boluntarioa, parte-hartze prozesuan murgilduta. Ez dakit nola eta, bereziki, nork hartuko dittuan azken erabakiak baina, momentuz, hor dabiz entzute eta hausnarketa lanetan. Elkarlanetan. Ez naiz prozesuaren partehartzaile izaten ari eta, ondorioz, esango ditudanak tentuz juango dira. Hasteko, azpimarratu nahiko nuke lasaigarria dala ikustia badauala gai honen inguruan kezkatuta dauanik. Ildo hontatik jarraituta, goraipatu nahiko nuke, bereziki, GDI siglapien daren plazentziatarrek egindako lana. Azken urteetan, informazioa bilatu, Ura, Aranzadi edota Merlin proiektuen arduradunekin bildu eta beste hainbat aditurekin elkarrizketatu dira, proiektu ofizialaren gaineko zalantzak argitu eta beste aukera batzuk bilatu nahian. Egindako lana, serioa bezain erabilgarria dela iruditzen zaidanez, idatzizko esker publiko bat emateko aprobetxatu nahi dut gaurkuan. Besterik gabe, jarraitu guztiok horretan, argi daukat eta, danon irizpidia Sorraluze hobe bat lortzia izango dala!



"Hezkuntza honekin, ez dugu emakumeek bakarrik galdu, baita gizonek ere"

REYES SOLANO, ETZOZI LARRAÑAGA, TXARO LETE ETA ELENA PEREZ

Azaroaren 30erako Greba Orokor Feminista deitu dute. Zaintza publiko eta komunitarioa eta zainduak izateko eskubide kolektiboa aldarrikatu nahi da. Protestaren zergatietan eta arrazoietan sakontzeko, hiru belaunalditako lau emakumek zaintzekin dituzten edo izan dituzten bizipenak eta haien ikuspuntua jaso ditugu.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Fernan Oregi Txurruka**.

Reyes Solanok (Malpartida de Cáceres, 1943), Etzoz Larrañagak (Soraluze, 1952), Txaro Letek (Soraluze, 1957) eta Elena Perezek (Soraluze, 1971) zuzeneko esperientzia dute zaintzekin. Lanbidearengatik zein bestela, zaintzalanak egin behar izan dituzte laurak.

Zuzenean ikusi eta bizi izandakotik, uste dute ezinbestekoa dela egoera aldatzea kalitatezko zaintzak eman zein jaso ahal izateko, eta, horretarako, azaroaren 30erako deituta dagoen greba feminista moduko mobilizazioak beharrezko ikusten dituzte.

Zaintzak zein leku du eta izan du zuen bizitzetan?

Elena: 20 urte pasa eman ditut administrari moduan, baina hiru urtetik hona erizain laguntzaile naiz eta batetik bestera nabil lanean. Etxean, berriz, bost seme-alabetatik neska bakarra izan naiz. Zaintzak behar izan dituen hemen geratu zen (gurasoak eta anaia) eta neu ere bai. Ez dakit senarengatik edo nire izaerarengatik, baina Soraluzen, gurasoengandik gertuan geratu nintzen.

Etzoz: Zortzi urte daramatzat erretiratuta, baina 40 urte egin ditut andereño lanetan. Ikastetxean, adibidez, irakasle gehienak emakumeak izan arren, zuzendaritzako postuetan gizonak egoten ziren, nahiz eta zuzendaritzako kideak aukeratzeko bozketa gure esku egon. Emakumeren bat planteatzen zenean zuzendaritzarako, beti "barkatzen" genion zaintza lanak zituelako, edo umeekin edo gurasoekin. Baina era berean, hori aitzakia ona zen guztiok buruan geneukan gizon hori aukeratzeko. **Txaro:** Lan ugari izan ditut, baina bakarrean kotizatu dut. Zaintzekin lotuta, umeak zaindu ditut, Ikastolan lan egin dut 3-4 urteko umeekin eta nagusiak ere zaindu ditut.

Reyes: Abenduan 80 urte egingo ditut. Etxetik kanpo ez dut inoiz lanik egin, etxean larregi. Lehenengo, lau seme izan nituen oso jarraian (bosgarrena hil egin zitzaidan) eta gurasoei beti lagundu izan diet, hemen bizi ziren eta oso nagusiak ziren. Amarekin bizitzen geratu ziren bi anaiei noiz edo noiz tokatu zitzaizen zerbait egin beharra amari laguntzeko, baina ezustekoren



Etzoi Larrañaga, Elena Perez, Reyes Solano eta Txaro Lete Santa ana kalean.

batengatik, bestela, familiaz neu arduratu izan naiz. Gero, anaiak ama barik geratu zirenean, haiei lanak egitera joaten nintzaien, lehenagoko gizonek ez baitzekiten ezer egiten. Orain, azken anaia geratzen zait. Ni ez nago ondo eta ez naiz haren lanak egitera joaten, baina osasun-hitzorduetara-eta laguntzen diot.

Zelako esperientziak izan dituzue zaintzarekin lotuta?

Reyes: Egin beharra zegoen eta listo. Gainera, senarra zetorrenarako dena antolatuta egon behar zen. Horrela erakutsi ziguten. Senarrak apur bat lagundu dit umeekin, baina umeak bakarrik ibiltzeko gai zirenean. Gustuko zuen umeak kalera ateratzea domeka goizetan; pare bat orduz ateratzen zituen, gero ekarri eta bera txikiteora joaten zen. Bestalde, nire anaiek, beste erremediorik ez zutenean, zerbait sinplea bazen, egiten zuten, baina zerbait konplikatuagoa bazen, ez zuten egiten. Lehen, hori ez genuen txarto ikusten. Bestalde, anaiek zertxobait ordaintzen zidaten euren lanak egitearren, baina osterantzean, ez dut ez kobratu ezta kotizatu ere. Etxetik kanpo ezin izan dut lanik egin. Gustatuko

litzaidake lana egin eta kotizatu izana, baina sasoi hartan normal ikusten genuen etxeko lan guztiak (zaintzak etxeko lanak ziren) guk (emakumeok) egin behar genuela. Orain daukadan bakarria senarraren alargun pentsioa da.

Etzoi: Edukazionala zen. Nire etxean, adibidez, nire anaia feminista auto-definitzen zen. Etxetik joan arte, aldiz, ez zuen oinetako bakar bat ere garbitu, etxean hiru neska geundenez... lehen halako gauzak ez ziren planteatzen. Irakasle moduan ikusi dudanari dagokionez, umeak zenbat eta txikiagoak, amak arduratzen dira; hau da, umeek zaintzeko behar handia dutenean, emakumeak arduratzen dira haietaz. Eskolako lehen mailetan, adibidez, gizonak ez dira sartzen. Gero, umeena zaintza izateari laga eta transmisioa sartzen hasten denean, gizonak gehiago sartzen dira. Seme-alabek zein ikasketa edo karrera egin erabakitzerakoan, orduan bai, orduan esku-hartze zuzenagoa izaten dute gizonak.

Elena: Ume-gaztetan ez neukan sentsaziorik besteek (anaiek) baino gehiago egiten nuenik. Amari laguntzen ibiltzen nintzen eta berak

ERREPORTAJEA

esandakoa egiten nuen. Gero, ikasketengatik kanpoan bizi izan ziren anaiek autonomoago izaten ikasi zuten. Baina asteburuetan etxera zetozenean, partaidetza aldetik nirearen erdia ere ez zuten egiten, nik, aldiz, etxeko lan batzuk nireak bailiran nituen barneratuta. Gero konturatu nintzen egoeraz, independizatu eta nire etxera joan nintzenean. Konturatu nintzen gurasoen etxera joaten ginenean, nire rolak lehengo berbera izaten segitzen zuela eta anaiena, berriz, beste rol bat zela. Anaiek bazekiten gauzak egiten ordurako euren etxeko-gizonak bazirelako, baina...

Txaro: Nik etxean zortea izan dut, aitari berdin zitzaion fregatzea zein umeekin ibiltzea. Nire senarra, berriz, errege moduan bizitzen ohituta zegoen. Bi emakume etxean berari begira.

Asteburuan, gosaria ohera eramaten zioten, egunkari eta guzti. Ezkondu ginen arte. Lehenengo bere etxera ezkondu ginen eta esan zidaten niri ere ekarriko zidatela gosaria ohera; esan nien: *Ezta pentsatu ere, ez niri ezta berari ere, goseak bada, jaiki dadila*. Gaur egun, adibidez, etxean ez dut harrikorik egiten eta hori eta beste lan batzuk gizonak egiten ditu.

Zein iritzi duzue zaintzak gizartean duen pisuaz? Esango zenukete geroago eta gehiago aitortzen direla zaintza lanak?

Reyes: Orain, behintzat, ikusten dira gizonak umeekin badabiltzala, fardelak aldatzen dizkietela... zerbait ikusten da. Dena den, ni orain hiru

semerekin bizi naiz. Ez ditudanez beste modu batera ohitu, ez didate askorik laguntzen; kasu horretan, nire errua ere bada, ez diedalako erakutsi. Etxetik kanpo lan egiten dute, baina etxean gutxi. Erosketak igotzen eta halako gauza batzuk egiten laguntzen dute. Semeek, euren etxera bizitzera joango balira, gehiago egingo lukete, jakin badakite egiten eta. Imsersorekin-eta oporretan joan izan naizenetan, adibidez, ez dira jateke geratu.

Etzozi: Egia da orain gizon gehiago dabiltzala kalean umeekin, eskolara joaten dira haien bila... baina gizonak umeekin kalean dauden bitartean, etxeko lanak egiten dagoena emakumea da. Gizartean aurreratu da, baina oso gutxi, horrenbeste eta horrenbeste urteren ondoren... Nire kasuan, adibidez, etxean, elkarrekin bizitzen hasi berritan, senarrak berak zintzilikatzen zuen arropa, tokatzen zitzaionean. Behin, ni nenbilela, albokoak esan zidan, *zelako zortea duzun! Zer ba?* Galdetu nion, eta hark erantzun: *Gehienetan zure senarra dabil arropa eskegitzen*. Eta esan nion, *ez, zortea berak dauka, nik lan bikoitza daukat: nik egin eta gainera, berari erakutsi; ze erakutsi egin behar zitzaien*.



REYES SOLANO ETXEKOANDREA
MALPARTIDA DE CACERES, 1943

Bere etxean, lau seme eta senarra zaindu izan ditu. Etxeko lanak ere berak egin behar izan ditu beti. Etxetik kanpo, berriz, gurasoak eta anaia ezkongabeak zaintzea tokatu zaio. Gaur gaurkoz, ia 80 urterekin, berarekin bizi diren hiru semeetaz arduratzen da eta oraindik bizirik duen anaietako bati medikuarenera eta halakoetara laguntzen dio.

"LAU SEME, GURASOAK ETA BI ANAIA ZAINDU IZAN DITUT; ORAIN HIRU SEME NIREKIN BIZI DIRA"

"ETXETIK KANPO EZIN IZAN DUT LANIK EGIN, GUSTATUKO LITZAIDAKE LANA EGIN ETA KOTIZATZU IZANA"



ETZOZI LARRAÑAGA IRAKASLE ERRETIRATUA
SORALUZE, 1952

Orain dela zortzi urte bukatu zuen 40 urtez berea izan duen andereño jarduna. Esperientzia profesionalean oinarrituta, umeen hezkuntzako hasierako urteetan, umeen zaintza beharra nagusitzen denean, irakasle gizonezkoen partaidetzarik ia ez dagoela ikusi du. Umeen zaintza beharra gutxitzen doan neurrian, berriz, gizon irakasleen edo maisuen presentzia handitzen doa.

"HEZKUNTZA MOTA HONEKIN, EZ DUGU EMAKUMEEK BAKARRIK GALDU, BAITA GIZONEK ERE"

"HOBETO DA PROFESIOALEN BITARTEZ ZAINDUTA EGOTEA ETXEAN MODU TXARREAN BAINO"

Txaro: kalean niri orain ere esaten didate, *a zer zortea duzun senarrak mandatuak egiten dizkizula!* Eta nik erantzuten dut, *berak ere jaten du, eh?*

Elena: Uste dut badaudela gauza eta lan batzuk gizonek ez dituztela ikusi ere egiten, eta, askori ez zaie berez irteten besteak zaintzeko ardura. Niri inbidia ematen dit lasaitasun horrek.

Esango zenukete oraindik asko falta dela egiteko?

Reyes: Bai. Aurtengo udan, adibidez, jaioterrian egon naiz hilabetez eta etxean geratu zirenek egunero galdetzen zidaten zer egin eta zelan egin lanak. Eta hemen banago, gauetan, adibidez, ni jubilatuetatik bueltatzeko zain egoten dira afaria nik egiteko. Esaten diet ez nagoenean ikasi egin beharko dutela, baina...

Etzoki: Bai. Hezkuntza mota honekin, ez dugu guk bakarrik galdu, baita eurek ere. Ez dakite janaria prestatzen, antolatzen...

Txaro: Nire anaiek ere ez zuten ezer egiten, baina gurasoek ezin izan zutenean, kozinatzen eta denetik egiten ikasi zuen. Bietako bat orain oso sukaldari ona da.

Elena: Hobetzeko asko dago eta horregatik hor segitu behar da, lanean.

Zein hutsune nabaritzen duzue zaintzekin lotuta eskaintzen diren zerbitzuetan?

Reyes: Lehen baino erraztasun handiagoak daude, baina egoera ez dago ondo. Egoitzak, adibidez, oso-oso garestiak dira eta jende guztia ezin da joan. Gainera, egoitza batean ez zaituzte hartzen erabateko dependentzia egoera batera iritsi arte.

Etzoki: Halako zerbitzuetan ere, zaintza kontua denez, langile gehienak emakumezkoak dira, egoitzetakoak, ospitaleetakoak... baina agintean daudenak gizonak dira. Programa politikoak irakurriz gero, pertsonak etxean ahalik eta denborarik luzeenean izateko irizpidea lehenesten dute, eta, esaten dute horretarako laguntzak emango dituztela. Baina oso-oso gutxi ematen dute. Eta azkenean, etxeko hori zaintzeko beharrezkoak diren pertsonak, bakarra edo bi hartzen dira, eta baldintza txarretan egoten dira. Beraz, gezurra da laguntasunena. Eurek erabiltzen duten propaganda da, badakitelako biztanleria gero eta nagusiagoa garena eta izango garena. Orain dela denbora asko hasi behar ziren halako neurriak hartzen, bestela, herri bakoitzean egoitza bakarra barik, bat baino gehiago egon beharko dira.

Txaro: Gainera dena pribatizatu egin nahi dute.

Elena: Oraingo sistemarekin egoitza gehiago edo edukiera handiagokoak behar dira. Diskurtsoak oso ondo daude, baina gero, gurpila martxan jartzea

ERREPORTAJEA

asko kostatzen da, gauzak aktibatzea. Oso ondo dago esatea *pertsonak etxean modu indibidualizatuan zaintzea bultzatzera goaz*, baina gezurra da behar den besteko babesa ematen dutela behar duenari etxean arreta emateko; adibidez, 1.500-1.600 ordaintzeko aukera izan arren, interina bat hartzeko ez da nahikoa, asteburuetarako beste pertsona bat behar duzu... Aurrezkiren bat baldin baduzu, hortxe xahutzen da dena. Gaur gaurkoz, egoitzetara doazen gehienak egundoko dependentziarekin joaten dira. Ez da lehen moduan. Nire gurasoek (euren gurasoak etxean zaindu behar izan ondoren) erabakita zuten ondo zeuden bitartean, biak egoitza batera joango zirela bizitzera. Ezin izan zen horrela izan ama 69 urterekin hil zelako. Egoera hori aldatu egin da. Gaur egun, zu ez zoaz etxetik egoera hori aldaezina izan arte, etxean zaintzea erabat ezinezkoa izan arte. Eta egoitzetara doazenak deterioro inportante batekin doaz, baina haiei arreta emateko egoitzetako langileen ratioa ez dute handitzen. Oraingo egoerekin, pertsona gehiago behar dira erabiltzaile kopuru berari arreta emateko, ze erabiltzaileen dependentzia mailak ez dauka orain dela urte batzuetakoarekin zerikusirik. Pentsatzeko dauden buru horiei honakoa esango nieke: *Eraman aita edo ama egoitza batera eta 15 egun barru berriro ere elkartuko gara; esango didazu zenbateraino hobetu daitekeen zure gurasoari ematen dioten arreta*. Langile moduan ikusi dudanaगतिक, instalazioak zaharkituta gelditu dira eta ez dago nahikoa baliabide tekniko, espazioa eskasa da... Eta langileen lan-baldintzak ere oso kaskarrak dira. Bestalde, ni bi motako egoitzatan ibili naiz, Diputazioak azpikontrataturakoetan eta Diputazioak zuzenean kudeatutakoan (Kabia). Zerbitzu batetik bestera desberdintasunen bat igarriko nuela pentsatzen nuen, baina ez nuen desberdintasunik igarri ratioei, instalazioei zein arretari dagokienean.

Zein da ikusten duzuen gabeziarik handiena?

Reyes: Nire anaia ezkongabea nahiko delikatuia dago, COVIDa aurretik, ebakuntza egin zioten eta bi emakume izan genituen hura zaintzen, bata gauzez eta bestea egunez, ez zuelako nahi bakarrik geratu. Hilean 2.000 euro inguru kostatzen zitzaigun, eta bi urtez egon ginen horrela, laga egin behar izan genuen arte, ez genuelako diru gehiago. Orain, Udaletik, astelehenetik barikura datorren emakume bat ordu eta erdiz egoten da han lanean. Baina bestela ni arduratzen naiz anaiarekin. Burua



TXARO LETE LANGABEA
SORALUZE, 1957

Lan ugari izan ditu, baina bakarrik fabrikaan kotizatu zuen. Osterantzean, umeak zaindu ditu, Ikastolan lan egin zuen 3-4 urteko umeekin, nagusiak zaindu izan ditu, tailerlean ere lan egin izan du, etxe bat garbitzen, dendari izan da eta hostel batean lan egin zuen, Zumaian. Hostalean, 16-17 urterekin, 08:00etatik 00:00ak arte. "Dena egiten genuen".

"ZAINZAREKIN LOTUTAKO ZERBITZU GUZTIAK ERE PRIBATIZATU EGIN NAHI DITUZTE"

"KALITATEZKO ZAINZTA UNIBERTSALAK LORTZEKO BIDE BAKARRA MOBILIZAZIOA DA"



ELENA PEREZ ERIZAIN LAGUNTZAILEA
SORALUZE, 1971

Soraluzen bizi izan da beti. 20 urte pasa administrari moduan lan egin du eta azken hiru urteotan, erizain laguntzaile. bost seme-alabatik alaba bakarra izan da. "Gurasoak hemen geratu ziren eta ez dakit inertziaz edo nire izaerarengatik-edo, baina ni ere haiengandik gertu geratu naiz".

**"AURREZKIREN BAT BADUZU,
NORBERE EDO BESTEAREN
ZAINZAK ORDAINTZEN
XAHUTZEN DIRA"**

**"EGOITZETAN BEHAR HANDIAK
DITUZTEN PERTSONAK DAUDE,
LANGILE KOPURUA, ALDIZ, EZ DA
HANDITU"**

ere joaten zaio apur bat eta ez dago lasai bakarrik. Orain medaila ipini diogu. Birritan etorri zitzaizkion balorazioa egitera, baina oraindik bakarrik dutxatu eta jantzi daitekeenez, ba ez dago bestelako laguntzarik.

Etzozi: nik beti esan izan dut, kognitiboki ondo egoteari lagatzen diodanean, egoitzara. Pandemiarekin zalantzan jarri zitzaidan hori. Baina segitzen dut pentsatzen hobeto dela profesionalen bitartez zainduta egotea, etxean barik, kontratatutako beste x pertsonak zainduta egotea baino. Ezagutu nuen kasu bat ez zuela inondik inora egoitzara joan nahi eta urteak eman zituen etxean pertsona batek zainduta, gehiago ezin izan zuenera arte. Azkenean, egoitzara eramán zuten eta alabek esan zidaten kognitiboki ere hobetu egin zuela hara eramán zutenetik. Azken batean, egoitzetan profesionalak daude. Baina oso modu deteriotatuan joan den pertsona bat kognitiboki hobetzeko langileak behar dira, formazioa jasoko duten pertsonak. Sartzen direnetatik asko oso dependienteak dira. Bestalde, oso gutxi dira zaintzaile gizonetzkoak. Ikusten dira gizon bakar batzuk gizonak zaintzen, ez emakumezkoak.

Txaro: Horregatik esaten da zaintzaileak zaindu egin behar direla.

Elena: Pretenditzen dute zaintza individualizatuak ematea, baina ez dituzte zeregin horiek nahi den mimumo betetzeko beharrezko profesionalak ipintzen.

Azaroaren 30erako deituta dagoen greba orokor feministari dagokionez, beharrezko ikusten dituzue halako mobilizazioak?

Reyes: Bai, ondo dago. Langileek ere badituzte euren eskubideak, kasu honetan, batik bat emakumeek.

Elena: Zarata atera behar da bai ala bai. Zarata aterata ere gutxi ikusten da, beraz, ez badugu zaratarik ateratzen... Bai, adibidez, pilotu batek ezin du pentsatu bere denborak zaintzaile batenak baino gehiago balio duenik. Denbora berbera da denontzat, berdin da non lan egin, eta ezin da zaintzak horrenbeste gutxietsi.

Etzozi: Bai, gainera, etxeetan lan egiten duten asko oso baldintza txarretan daude. Eta beste bat da ni zaintzaile izan naiteke, hori argi dago, baina pilotu batek ikusiko luke bere burua zaintzaile izaten?

Txaro: Mobilizazioa da geratzen zaigun bide bakarra zaintzak unibertsalak eta kalitatezkoak izatea nahi badugu eta erabiltzaileen zein langileen eskubideak errespetatu daitezela nahi baldin badugu.

60 bat herritar 'Goazen Soraluze'-n

Abenduaren 12an Ibilaldi Osasungarria egingo dute, hamaiketako osasuntsu eta guzti; nahi duten guztiek parte har dezakete

Abenduaren 12an, martitzena, 10:00etatik 11:30ak arteko Ibilaldi Osasungarria egingo dute, *Goazen, Soraluze!* kirol orientazio zerbitzutik antolatuta. Bidegorritik Osintxura joan eta buelta izango da ibilbidea eta "erritmo lasaia" izango dutela jakinarazi zu Anje Eskarza kirol orientatzaileak. Parte hartzeko nahikoa da egunean bertan 10:00etan Plaza Berrian azaltzea, paseatzeko "arropa ero-soarekin", gomendatu dute. Ibilaldia amaitzean, "hamaiketako osasuntsua" egingo dute Plaza Berrian.

Ibilaldi horrekin borobilduko du urtea *Goazen Soraluze!* ekimenak eta aldi berean, ekimenerako "jende gehiago erakartzeko" baliatu nahi dute, Anje Eskarzak esplikatu duenez.



Ekimenaren aurkezpena.

Aholkularitza, indar ariketak...

Hark emandako datuen arabera, *Goazen, Soraluze!* zerbitzua aurtengo martxoan jarri zen martxan, herritarren artean kirol eta jarduera fisikoa bultzatzeko, batik bat osasunaren ikuspuntutik.

Ordutik hona, 60 bat soraluzetar pasa dira kirol orientazio zerbitzutik. "Osasun-etxetik deribazio nahiko izaten dira, bi astetik behin bizpahiru lagun berri etortzen dira. Horrez aparte, jendea bere kabuz ere ari da etortzen zerbitzura".

Goazen, Soraluze! ekimenaren baitan, Anje Eskarza Tolarekua aretoan egoten da martitzenero, 09:00etatik-13:00etara eta 14:00etatik 16:00etara eta bi astean behin anbulatorioan 11:00etatik 13:00etara kirol orientazio zerbitzua eskaintzen. Berez, zerbitzu hori pertsona inaktiboei zuzendutakoa da, baina aktibo izanda, kirol jarduera hobetu nahi duena ere bertara daiteke.

Horrekin batera, martitzenetan, 09:30etik 10:15ak arte indar ariketak egiten dituzte taldean, Arane kiroldegian. Gaur egun, 16-18 bat lagun parte hartzen ari da ariketa horietan, eta, dagoen interes altua ikusita, aztertzen ari dira zerbitzu hori egunetan ere eskaintzeko aukera izango litzatekeen.

Gipuzkoako gazteen errugbi selekzioak Soraluzen, abenduan eta otsailean

2023-2024 denboraldian, Soragazteak Rugby Klubak zenbait ekitaldi antolatuko ditu Ezoziko Futbol Zelaian, Gipuzkoako Federazioarekin elkarlanean.

Abenduaren 3an izango da lehenengo hitzordua. Egun horretan, Gipuzkoako selekzioko mutilek entrenamendu saioak egingo

dituzte Soraluzen; 09:30etik 11:00etara 13 urtez azpikoek jardungo dute eta 11:00etatik 12:30era, 14 urtez azpikoek.

Soraluze, partiduen egoitza

Otsailaren 24an, berriz, Gipuzkoako selekzioko nesken txanda izango da. Haiek ere Ezozin izango dira entrenatzen, 13 eta 14 urtez azpikoak.

Gainera, selekzioko entrenatzaileetako bat Erica Passenau izango da, Soraluzeko taldeko entrenatzailea ere badena.

Rugby klubeko Enekoitz Igartuak esandakoaren arabera, denboraldia borobiltzeko, besteak beste, martxoa aldera, Ezoziko zelaia domeketako Gipuzkoako errugbi partiduen egoitza izango da 10-12 urtez azpikoetan eta ekainean, berriz, V. Errugbi Eguna antolatzen ahaleginduko dira.



'20.000 especies de abejas' filmako eszena. RTVE



Hopper oilaskoerbia filma.

Udazken-neguko zine eskaintza

Martitzenean, 20.000 Especies de Abejas film entzutetsua eskainiko dute Antzokian eta abiatu da haurrentzako zikloa.

Negu giroa ailegatu den honetan, helduentzako zein umeentzako film sorta proiektatuko da Antzokian. Hasteko, datorren martitzenean, Udalak programatuta, Estibaliz

Urresolak zuzendu eta hainbat sari jaso dituen 20.000 Especies de Abejas film ezaguna proiektatu da Antzokian, arratsaldeko 19:00etan hasita. Sexu aniztasunaren aldarria egiten duen filmak, jaiotzean


Aitor izena ipini zioten 8 urteko ume batek bere identitatearekin bizi dituen gatazkak ditu ardatz.

Umeentzako zikloa

Dagoeneko abian da Udaleko Kultura Sailak eta Atxolin Guraso Elkarteak urtero elkarlanean antolatzen duten umeentzako zine-zikloa. Zikloa 6 pelikulak osatzen dute, guztiak azken bi urteetan estreinatutakoak, eta igandeetan proiektatuko dira, arratsaldeko 5etan. Hurrengo filma abenduaren 3an: Hopper Oilaskoerbia.

Sagarduiren Zaldi berdea

Eguaztenean, Jose Mari Sagardui Moja *Gatza* (Zornotza, 1958) ETako preso ohiak, Zaldi berdea liburua aurkeztu zuen Arrano elkartearen. Ataramiñe argitaletxearekin argitaratutako liburuan, Sagarduik 1980tik 2011ra bitartean preso egin zituen 31 urteetan espetxeetan bizi izandako esperientziak kontatzen ditu.



"Uhartearen pasaiak, giroak, eguraldiak... liluratu ninduten"

NEREA NIEVAS SORALUZETIK MALLORCARA

TESTUA: **ANDER GOMEZ**

ARGAZKIAK: NEREA NIEVAS

Hiru urte daramatza Nerea Nievas Hernandezek (Soraluze, 1996) Mallorcan bizitzen.

Gasteizen egin zuen Erizaintza Gradua, onkologian espezializatua, eta orain Palmako ospitaleko ZIUn (Zainketa Intentsiboetako Unitatean) dihardu erizain.

Zela iritsi zinen Mallorcara?

Gradua amaitu eta berehala hasi nintzen lanean Gasteizen (erizaintzaren alde ona, lana badagoela), baina lanordu gutxiko eta epe laburreko kontratu batetik bestera nenbilen han-hemenka (hortxe txarra, kontratuen iraupena: behin 10 eguneko bat izan nuen, adibidez). Halaxe pasa nituen urteak, tarteka Soraluzeko egoitzan, Mendaron %100eko jarduna lortu nuen arte. Orduantxe, bertan ikusten nuen nire burua, herritik gertu. Baina egun libre batzuk hartu nituen behin Mallorcako lagun bat bisitatzeko eta uharteak maitemindu ninduen. Bisita uztailean izan bazen, irailean bertan nengoen, bizitzen eta lanean.

Zer dela eta txip aldaketa hori?

Ba, hasteko, lagunak lanean hasi zirenean, eurek ordutegi "normala" zerratela ikusten nuen eta nirea (erizainarena) guttiz aldakorra da: asteburuak lanean eman ditzaket eta aste barrua libre izan; eta herri txiki batean, astegunetan, bakarrik... ez dago aukera askorik. Hor hasi nintzen dudatan eta kanpora joatea planteatzen.

Behin uhartea bisitatuta, bertako giroak, eguraldiak, pasaiak... liluratu ninduten.

Lagunekin geratzeko

bateraezintasun hori berdina izango da Mallorcan, ala?

Ez, lana oso desberdina da hemen. Gazte pila bat dago medikuntza arloan: denboraldi baterako datoz, puntuak lortzera, eta guztiak etxetik kanpo bizi garez, elkartu egiten gara. Jende berria ezagutzen dut ia egunero.

Anekdotak dibertigarriak ospitaleen mundu horretan?

Bueno, gauza surrealistik gertatzen dira hemen. Askok, adibidez, oxigeno maskararen zaratak gas isuriekin nahasten dituzte: behin suhiltzaileak eta polizia aurkitu genituen gaixo

baten ohe inguruan, gaixoak berak deituta. Beste behin, paziente batek sute bat eragin zuen ospitalean: oldarkor zegoela, ohe batean utzi zuten mugitu ezinda, baina metxero bat omen zeukan poltsikoan eta su eman zion oheari. Ospitaleko sistemak sua detektatu eta segurtasun ate denak itxi zituen, sekulako kaosa sortu zuen.

Pasadizoak alde batera lagata, zelakoa da zure errutina, eguneroko bizitza Mallorcan?


Txandaka egiten dut lan: bi goiz, bi arratsalde eta gau bat; gero, hiru egun izaten ditut libre. Justu orain, bi tokitan nago lanean: publikoan eta pribatuan, soldata estra bat jasotzeko, hemengo eguneroko bizitza oso garestia da eta.

Aparte, hemen ere lanaldiak lotu daitezke: goiz eta

"HEMEN BIZITZEA OSO GARESTIA DA; HORI BAI, BIZI KALITATEA EZIN HOBEA DA"



Ibalditxoa egiten Malgrats uharteetan.



Lankidearekin ospitalean.

arratsaldea segidan egin (14 ordu), arratsaldeko txanda eta gauekoa bateratu (17 ordu)...

Oso nekagarria da, baina horrela egun libre asko lortu ditzakezu planak egiteko edo herrira bueltatzeko.

Lanari buruz diharduzu batez ere, baina aisialdian, adibidez... martxa ala lasaitasuna nahiago?

Heldu berri: martxa, duda barik. Orain, lasaitasuna baloratzen hasia naiz.

Azkenean, denetik egiteko aukera dago hemen, parranda nahi baduzu... badaukazu, udan zein urtean zehar; lasaitasuna ere, baina Palmatik urrundu behar zara, hiria estres konstante bat da.

Zela definitu zenuke bertako bizitza?

Zeharo desberdina kulturalan, hizkuntzan... baita kalean egoteko "moduan" ere: ez dago kalez kale, tabernarik taberna, lagunekin zutik egoteko gure ohitura hori.

Faltan botatzen duzu hori?

Bai... poteo on bat (barre); eta paisaia, mendi haiek botatzen ditut faltan.

Gustura egon arren, herrimina ere badaukazula dirudi...

Noski, normalean hiru hilabetero bueltatzen naiz, herriko data bereziekin bat egiten saiatuz: Gaztañerre azokarekin, sagardotegiarekin, Santiago-Santa Ana egunekin... Jai egunak izateaz gain, lagunak libre daudelako eta posible zaidalako haiekin eta familiarekin egotea.


Noizbait bueltatzeko asmorik?

Epe motz-ertainera ez dut nire burua Soraluzen ikusten. Lagun asko ere kanpoan bizi dira edo joateko asmoa dute, beraz, oraingoz, noizbehinka bueltatze horrekin nahikoa daukat. Epe luzera... ikusiko dugu, hemen bizitzea oso garestia da; hori bai, bizi kalitatea ezin hobea da.

Bukatzeko, gomendatuko al zenieke herritarrei uharteko bizimodua?

Bai, epe labur baterako bada ere, batik bat hemengo natura bere osotasunean ikusteko: hondartzak, kalak, mendiak... benetako paradisia da.

Hala ere, eskertzen da jendea herrian geratzea, bueltatzerakoan eta betikoekin elkartzean "etxe sentimendu" hori are handiagoa delako.



Es Trenc kalan egunpasa.



Lagunekin RBF festibalean.

Teknologia berriekin sortzen

SHEILA MERINO ETA ANDER YUSTE, 3D INPRIMAGAILUAREN ERABILTZAILERAK

TESTUA: **JULEN MURUA** GOIENA

ARGAZKIAK: SHEILA MERINO

2018. urtean erosi zuten 3D inprimagailua Sheila Merino soraluzetarrak eta Ander Yuste arrasatearrak, baina pandemia iritsi arte ez ziren hasi puzzle kaxak egiten. Etxean egoteak zekarren denbora era batera edo bestera aprobetxatu beharra zegoen, eta haiek denbora hori erabili zuten gaur egun duten zaletasun nagusienetako bat sortzeko: 3Dko puzzle kaxak egitea.

3Dn oinarrituta

Haien sorkuntza nonbait erakutsi nahi zuten, jendeak ikus zezan zer egiten zuten Merinok eta Yustek. Hori dela eta, Yusteren aitaren herrian eskaera egin, eta onartu egin zuten herrian bertan puzzle kaxen erakusketak bat egitea. Arrasatearrak dio "sekulako harrera" izan zuela erakusketak bertan, eta hori guztia Euskal Herrira ekarri nahi dutela, haien helburu nagusia baita "euskara, teknologia eta adin ezberdinen arteko elkarlana sustatzea".

3Dko puzzle kaxak eta buruhausgarriak egiten dituzte proiektuan, baina, horretaz gain, 3D inprimazioaren gaineko erakustaldi bat ere egiten dute, inprimagailua bera martxan jarrita. Horrek "jendea erakarri" egiten duela dio Yustek. Proiektu ezberdin bat

da, egunerokotasunean ikusten ez den horietako bat, eta "horrek sortzen dituen galdera guztiak erantzutea aberasgarria" dela diote arrasatearrek. Aurrera begira, egiten dituzten erakusketetara aerografoa eramatea nahi dute, jendeari 3D inprimatzearen inguruan gauza gehiago erakutsi ahal izateko.

Hainbat aukera

3Dko puzzleen hainbat aukera eskaintzen ditu bikote arrasatearrak: "Ditugu logika erabili beharreko puzzleak, gauzak leku konkretu batean sartu edo leku konkretu batetik ateratzekoak; kutxa itxiak, non kutxa ezberdinak irekitzen joan behar den gauza konkretu bat lortzeko; zorizko kaxak, non mugimendu zehatz batzuk egin behar diren kaxa zabaltzeko, eta beste batzuetan forma konkretu bat lortu behar da piezekin".

Aukera ezberdin horiek bikotearen sorkuntzak "entretengarriak izatea" eragiten du; "hasiera batean oso errazak diruditenak baina, saiatzerakoan, zailtasuna izaten dutenak" izaten dira, orokorrean, jendearen gustukoena.

Zailtasun maila ezberdineko aukerak ere eskaintzen dituzte: "Eramaten ditugu puzzle errazak, puzzle apur bat zailagoak direnak, eta, gainera, badira batzuk sei edo zazpi modulu ezberdin dituztenak eta



Sheila Merino eta Ander Yuste.



3Dko puzzle kaxa bat.



Haurra 3D puzzlea egiten.



zabaltzen joan behar zarenak; horiek oso zailak dira. Baina gu egokitu egiten gara guregana etortzen den pertsonaren arabera".

Arrakasta handia

Jendeari asko gustatzen zaion zerbait dela diote, "ezberdina" den zerbait delako. Puzzlea sortzeko jarraitu behar den prozesu guztia ikusteak eta puzzleak berak entretenigarriak bihurtzen ditu puzzle kaxa horiek, eta arrakasta handia dute: "Bideojokoetako armak 3D inprimagailuarekin eginda izaten ditugu erakusketetan, eta horiek umeei erakutsitakoan asko gustatzen zaie, horregatik ere badute arrakasta handia".

Horretaz gain, Yustek eta Merinok landuta dute puzzleek dituzten abantaila eta onurak ere zeintzuk diren: "Askotan galdetzen diguten zerbait da. Puzzleak arazoak konpontzeko gaitasunak hobetzen dituzte; oroimena lantzen da, estrategiak aztertzeko eta garatzeko gaitasuna ere sustatu egiten da, autoestimua handitu egiten du eta, batzuetan, frustrazioa ere sor badezake ere, horri aurre egiten laguntzen du". Azkenean, sormena bultzatzen duen beste kultur metodo bat da puzzle kaxena, teknologia berrien erabilera sustatzen dute, eta, dirudienez, duten arrakasta "handitzen doa".

Sheila Merinon puzzle erakusketan.

ZORION AGURRAK



Izar Uzin Zubizarreta
Azaroaren 24an 9 urte. Zorionak eta segi holako neska aparta izaten!!!



Inar Murguzur Gabilondo
Abenduaren 5ean 5 urte. Oso ondo pasa etxekoan partez. Muxu.



Markel Lizarralde
Azaroaren 10ean 12 urte. Zorionak Txapeldun! Jarraitxu oin arte moduan, pila maitxe zaitxugu!



Jare Beristain Casas
Abenduaren 7an 7 urte. Zorionak Jare, oso ondo pasa zure egunean. Etxekoan partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta plaentxia.eus/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa Mezua bidali zorionagurrak@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

JAIOTAKOAK

Jaiotakoak

Zoe Belastegui Muñoz

Nisha Amor Arrieta

Erabili meloia
Ez egin erosketa oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin
#KontsumitzenJakin

www.kontsumo.eus

administradores
Centro Vasco de Estudios de Administración de Empresas
Escuela de Formación de Administradores Locales de Euzkadi

ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

GAIA: Gure atariko lehendakari kargua betetzen zuen pertsonak bere etxebizitza saldu du, eta orain, kargu horri buruzko zalantzak ditugu. Jabe berriak kargu hori betetzeko aukera aztertu dugu, baina jabeak uko egin dio funtzio hori betetzeari.

ERANTZUNA: Jabekideetako batek nahitaez hartu behar du presidentekargua. Bere agintaldian zehar etxea saltzen badu, jabe izaera galtzeak berarekin dakar lehendakari kargua ere galtzea. Jabe berria ere ezin da behartu erosi duen etxebizitzaren saltzaileak zeukan funtzioa ordezkatzera, jabe berria ez delako legeak ezartzen duen moduan izendatu. Beraz, beharrezkoa izango da Ezohiko Batzarra deitzea, beste lehendakari bat hautatzeko, eta jabe berriak ere izango du lehendakari berria hautatzeko aukera.

GOMENDIOA: Horrelako egoeretan legedia bete behar da, harziren diren erabakiek balioa izan dezaten.

AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

ESKELAK

ESKELA

Eleuteria Ordax Prieto

2023ko abuztuaren 25ean hil zen, 87 urte zituela.

Goian bego.
Zure familiak gogoan zaitu.

Sendia.




ESKELA

Julio Alberdi Larrañaga

2023ko irailaren 27an hil zen, 85 urte zituela.

Gure bihotzetan izango zaitugu beti.

Etxekoak.



ESKELAK JARTZEKO: 699 86 87 29
edo eskelak@pilpilean.eus

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak (BEZ barne):

- ▶ Arrunta: 75 / Bazkideek 60
- ▶ Handia: 120 / Bazkideek 96

Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.

bertako

igogailuak | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua

100€-tik/hileko



Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzera

2.500 bezerok gugon dute konfiantza

943 903 450 bertako.eus

Euskararen Eguna

Abenduak 3, domeka

BATU DITZAGUN
GURE AHOTSAK.

TEKNOLOGIAIRI
EUSKARAZ
IKASTEKO

GAITU maratonia ahotsak batzeko

11:00etatik 14:00etara
Kalebarren 8an
(Udalaren lokala)



aukeratu txanda

Bazkaria euskara ikasleekin

14:30ean
Elkarte gastronomiko batean
Izen-ematea Pil-pilean



ERAZKUNTZA
BASKOA



EUKO ELKARTEA

aek

PORNOA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ESKOLA BAT DA

Eszena pornografikoen % 88,2k
emakumeen aurkako indarkeria
fisikoa edo hitzekoa du.

Ez dezagun sexu-heziketa
bere eskuetan utzi.

azaroak

25

Emakumeen Kontrako
Indarkeria Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

900 840 111 ^{24h}
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



EMAKUNDE
ERAZKUNTZA
BASKOA

Euskadi, auzolan



ELKISO JAIHARBITZA
GOBIERNO VASCO

ERAZKUNTZA
BASKOA

ERAZKUNTZA
BASKOA

araba ^{álava}
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



GIPUZKOA
ETORKIZUNA ORAIN
ESKURATU



EUKO ELKARTEA